

GAIA: GORPUTZ HEZKUNTZAREN DEFENTSAN • ESPERIENTZIA: UNANU
ETA ZARAUTZ • EKARPENA: HAUR ESKOLAK • GALDEIDAZUE: IVAN LOPERA
• VALDEREJO PARKE NATURALA • ATZEKO ATETIK: KOLDO AMESTOY

hh
hik hasi

162

4 EURO • 2011KO AZAROA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



ELKARRIZKETA

Nerea Mendizabal

Psikopedagogo eta haur masajeko hezitzailea



OIHANA HIRIAN

Leire Bilbao • Mai Egorza

Oihana aitarekin doa hirira: bat-batean, ordea, galdu egiten da, eta hiriko jendea oihaneko piztien itxurapean agertzen zaio: lehoiak, zebra, jirafak, errinozerontak...



KATTI BETI ENDREDATZEN

Antxiñe Mendizabal • Patxi Gallego

Katti eta etxeokak bolada zaila igarotzen ari dira: bikiak jaso direnetik, etxean zalaparta batean bizi dira. Kattik, halere, badaki arazoai aurre egiten, beti bazterrak endredatzen ibiltzen dela leporatu behar badiote ere.

HELDU LITERATURARI

www.elkarargitaletxea.com

elkar



AZAZKALAK JATEN DITUT, ETA ZER?

Ana Urkiza • Eider Eibar

"Eta zer?" bildumaren ezaugarria da desberdintasunak onartzea eta baloratzea: konplexuak eta marjinazioak gainditzeko modua, hemen, istorio dibertigarri bat da, azazkalak jaten dituen pintore batek bere haurtzaroari buruz kontakzen diguna.



TXOMINTXO ETA PERUTXO BAKARRIK GERATU DIRA ETXEAN

Peru Magdalena • Iosu Mixelena

Txomintxo eta Perutxo anaia bikiak etxean bakarrik daudela konturatu dira, goizean esnatu direnean. Eta sekulako egonezina sartu zaie. Dena den, dagoeneko mutil handiak direla sinetsita daude, eta euren kabuz konpontzen saiatuko dira.

aurkibidea



8
gaia

GORPUTZ HEZKUNTZAREN DEFENTSAN

Hezkuntza Curriculum eta Gorputz Hezkuntza ikertu ditu SIADECO Ikerketa Elkarteak. Euskal Autonomia Erkidegoan gisa horretako ikerketa egiten den lehen aldia da.



15
elkarrizketa

NEREA MENDIZABAL

Psikopedagogo, haur masajeko hezitzailea eta bi semeen ama da Nerea Mendizabal, eta, haurrak hezteko, zigorra, xantaia eta mehatxua gainditzeko proposamenak lantzen ditu, bai gurasoe-kin eta baita irakasleekin ere.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

**GORPUTZ HEZKUNTZAREN
DEFENTSAN**

16 elkarrizketa

NEREA MENDIZABAL

24 esperientziak

Unanu eta Zarautz, kantu batek loturik.

26 ekarpenak

Haur Eskolak eraldatzeko garaia.

32 galdeidazue

Zein gomendio izan beharko genituzke kontuan eskola egokitze aldirian?

Ivan Lopera

35 berriak

40 nora joango gara?

Valderejo: natura, abentura eta etnografia biltzen dituen uhartea.

42 Atzeko atetik

Koldo Amestoy

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Hik Hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2011-10-24). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

editoriala

azaroa

Udalbiltza berriro abian



Udalbiltzak Euskal Curriculumari emandako babesak berebiziko garrantzia izan zuen egitasmoaren hezurramitzean.

Abian da berriro UDALBILTZA. Zortzi urte pasa dira Espainiako estatuak haren jarduna etenez Euskal Herrian nazio mailan izan dugun erakunde bakarrak martxan ipini zituen hamaika egitasmo izoztu zituenetik.

Hezkuntza alorrean dihardugunok Euskal Curriculumari eman zion babesa eta bultzada aitortu eta eskertu behar diogu Udalbiltzari. Izan ere, haren itzalean elkarlanera batu zituen herrialde eta hezkuntza sare guztietako, publiko, kristau eskola zein ikastoletako jendea.

Europako, eta seguruenik munduko, gainerako lurraldeetan estatuak diseinatu dituzte beren hezkuntza curriculumak. Euskal Herrian, ordea, hila-beteetan norbanakoek eta herri eragileek egin zituzten proposamenak. Denen artean, milaka pertsonen artean, auzolanean, eraiki zen Euskal Curriculumak. Gisa eta kolore guztietako eragile, elkarte eta pertsonak egin zizkioten beren ekarpenak Curriculumari.

Izan ere, “Nor egokiago zer jakin

beharko luke euskal ikasle batek derri-gorrezko hezkuntza amaitzen duenean?” galdera erantzuteko jendarte baina... Pertsona horiek, ikasleak, jendarterako eta ahal bada jendarte hobeago baterako, prestatu nahi baditugu, bederen?

Urte hauetan guztietan aukera izan dugu hainbat herrialdeetako Hezkuntza Sistema ezagutzeko. Denen artean bi aipatuko ditugu: Finlandia eta Estonia. Biak ala biak ezagunak dira erdietsi dituzten emaitzengatik, besteak beste.

Ez dago zalantzarik bietan herriaren eraikuntzan eta kulturaren sustapenean hezkuntza eta eskola jokatzeko ari diren papera funtsezkoak direla. Independentzia lortu zuten bi herrialdeetan, gainera, Udalek eskumen garrantzitsuak dituzte hezkuntzan eta zuzeneko parte hartzea eta erabakimena dute eskoletan. Udalak, beraz, ezinbesteko elementuak dira emaitza onak erdiesten laguntzen duten zuzeneko eta gertuko kudeaketan.

Gurean, azken 50 urtetan eskolak euskararen berreskurapenean eta heldapenean egin duen lana begibistakoa da. Edukiaren arloan, bestalde, Udalbiltzak Euskal Curriculumak sustatzearen alde egin duen lana itzela izan da.

Horregatik, Udalbiltza indargabetzearekin batera, Euskal Curriculumaren gorpuztea indargabetua geratu zen, era berean. Horrek argitan uzten du zer-nolako garrantzia duen eta zein beharrezkoa den horrelako erakunde bat izatea.

Aukerez betetako garaiak zabaldu dira gure herriarentzat. Aldi berean, lanerako garaiak dira, batez ere. Hezkuntza arlotik ere gure hazia eta ahalegina eskaini behar diogu eraikitzen ari garen etorkizun berriari. Oxala Udalbiltza lehenbailehen eskuartetik kendu zizkioten lanak berrartzeko moduan den eta Euskal Curriculumaren egitasmoari arnas berria ematen dion. Bidai-de izango gaitu.

kronika

Euskal Herriko Egutegia Eraiki Dezagun!

Manifestua sinatu dute hainbat eragilek. Idatzian, egutegi arrotzen inposaketa salatu eta euskaldunoi gure jaiak ospatzera dei egiten zaigu. Aurten lehen aldiz, urriaren 25a jai egun izendatu dute Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Eusko Jaurlaritzak Gernikako Estatutuaren eguna izendatu baitu. Egun horretan, eta egutegi propioa osatze aldera, eskolak antolatu zituzten Gernikan. Eguerdiko ekitaldi nagusiarekin eta erakusketarekin batera, Historia, Hezkuntza, Sozioekonomia, Nazio egituratzea eta Gazteak gai izan zituzten eskolak eskaini zituzten.

Urriaren 12an, bestalde, Ikasle Abertzaleak antolatuta, Herri Eskolak egin ziren hainbat hezigunetan. Gernikan egin zen bezala, “jai egun arrotzei” planto egin eta “espainiartasunaren egunari ikasle gisa erantzuteko”.



Herri bat, eskola bat. Gure geroa

Lema hori idatzirik zuen pankartaren atzetik manifestatu ziren Baionan hezkuntzako sindikatuak deituta. Greba deituta zegoen irailaren 27rako Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako ikastetxeetan eta Lehen mailako bost irakasletik lauk erantzun zioten.

Sindikatuak jakinarazi dutenez, zaila da jakiten zenbat lanpostu murriztu dituzten Ipar Euskal Herrian. Departamenduan iaz, 29 lanpostu kendu zituzten Lehen Mailan eta 50 lanpostu, berriaz, Bigarren Mailan.

Hezkuntza ministerioak hartutako neurriak nabarmenena irakasle lanpostuak murriztea izanik ere, badira beste hainbat neurri hezkuntza komunitateko kideen haserrea piztu dutenak: iaztik irakasle berrien trebakuntza kendu zuten eta ondorioz, maisu-maistra berriek ez dute esperientzia duen

irakasle baten laguntzarik izaten, zuze-nean hartzen dute ikasgela baten ardurara; hainbatetan, bereak ez diren gaien eskolak ematera behartzen dituzte; langileen etengabeko formazioa ere kolokan dago; zailtasunak dituzten haurrentzako laguntzak ere murriztu dituzte.

Azken murrizketa horien harira, behar bereziak dituzten 20-25 haurrei ez diete laguntzailerik ezarri. Ondorioz, haur horiei ez zaie eskolatzeko eskubidea ematen. Horietatik zazpiren senideek auzitara jotzeko lehen pausoa eman dute: Ikuskaritzara gutun bat igorri dute haien haurrak laguntzailerik gabe daudela ohartaraziz. Bi hilabete-tan ikuskaritzak ez badie erantzuna ematen, orduan, auzitara jotzeko aukera lukete.

Ez da epaitegira jotzeko erabakia hartzen duten lehen aldia, eta bitan epaitegiak arrazoia eman die. Ordutik, estatuak debekatua du ahalmen urriko haurrak laguntzarik gabe uztea eta horien laguntzaileentzat kontratu prekarioak erabiltzea. Era berean, salatu dute estatua presioa egiten ari zaiola notifikazioak emateaz arduratzen den departamendu mailako elbarrituen etxe-ari laguntza eskuratzeko beharra duten haurren kopurua txikitzeko.

“Haurrak ez dauka burua leku batean eta bihotza bestean, guk bezala. Aldi berean gertatzen zaio pentsatzen duena eta egiten duena. Burua eta bihotza, biak, batera doaz. Hezitzaile txarrak hainbat gauza banaturik irakasten dizkio: buruarentzat, haurren buruan jaiotzen den dohai ederrenarekin, irudimenarekin, zerikusi gutxi dutenak; eta irakasten dizkio, banaturik, beste gauza gutxi batzuk bihotzarentzat. Dikotomia horren larriena, zuzentzea ia ezinezkoa gertatzen dela”.

Jorge Oteitza



Ur nahasiak ere Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan

Gehiengo sindikala duten EILAS, LAB eta ELA sindikatuek salatu dute-nez Eusko Jaurlaritzak ere murrizketak egin ditu. “Beharrei erantzuteko langile gutxiago dituzte, eta sarritan ikasleek astebete edo gehiago ez dute ordezkorik”. Heziketarako programak eta euskara ikastekoak ere gero eta urriagoak omen dira. Haien iritziz, “kalitateari eusten bazaio, langileen eta hezkuntzako beste eragileen inplikazioagatik, lanagatik eta esfortzuagatik da, ez gure administrazioek ematen dioten garrantziagatik edo bertara bideratzen dituzten baliabideengatik”. Horren guztiaren aurka protesta egiteko kalera irtengo dira, Nafarroako hezkuntzan greba duten egun berean. Era horretara, murrizketak Nafarroan soilik ez dira, murrizketak Nafarroan soilik ez dira, bide batez, jarrera aldatzeko eskatuko diete

Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari eta patronalari.

Sindikatuak Hezkuntza Sailari egindako proposamen sortatik hiru nabarmendu dituzte: ordezkapenak lehen egunetik betetzea, ordezkoen lan baldintzak hobetzea eta erretiro baldintzetan diskriminaziorik ez izatea. Lan ituna sinatu zuten CCOO eta UGT sindikatuek, bere aldetik, herrialde horietan ez dela murrizketarik izan adierazi dute.

Akordioa ikastoletan

LABek akordioa sinatu du Partaideekin eta ondorioz gaindituztat eman ditu ikastoletako soldata murrizketak. Iaz jaitsi zieten soldata ikastoletako langileei erakundeetatik diru gutxiago jasotzen baitzuten. ELAk ez du akordioa sinatu, eta “xantaiari men egitea” leporatu dio LABeri. Hitzarmena murriztailea delakoan, haren aurka egingo duela jakinarazi du ELAk.

Azterketa hiru eleko ikasleei

Hiru eleko hizkuntza-ereduan ari diren ikasleei ingeleseko azterketa egingo diete. Cambridgeko unibertsitatearekin akordioa sinatu du Jaurlaritzak eta European gisa horretako hizkuntza-mailak ebaluatzeko daukaten sistema erabiliko dute.

Ondoren, emaitzak orain arteko eruedetan ari direnenekin alderatuko dituzte.

Milaka pertsonak hezkuntzarako inbertsioari eusteko eskatu dute Iruñean, ikasturte berriarekin batera hasitako mobilizazioetako batean, Sortzen eta Herrikoa guraso elkarteak deituta. Guraizeen irudia ikurtzat harturik, hartutako erabakia bertan behera uztea, eta hezkuntzarako inbertsioa berreskuratzea eskatu diote Nafarroako gobernari. “Ez dago hezkuntza bezain beharrezkoa den zerbitzurik: justizia, aukera berdintasuna eta jendarterako bermea delako”. Sindikatuek ere jarraitzen dute protestekin. Sindikatuen eskaerei, gaixo dauden irakasleen ordezkoak 15 egun baino lehen ez dituela jarriko eta aurrekontuei buruz, berriz, ahal duena egingo duela erantzun die. Horiek dira, hain zuzen, sindikatuek egin dituzten eskari nagusiak eta erabakia idatziz jasotzeko eskatu dute, gainera. Batasun sindikala eten egin da, ordea. Izan ere, Afapna, UGT, ANPE eta APS sindikatuek ez dute jada bat egiten deiekin. Jose Iribasek, Nafarroako Hezkuntza Kontseilariak, greba politikotzat jo du eta irakasleei mobilizazioetan ez parte hartzeko eskatu die.

GAIA

Gorputz hezkuntzaren defentsan





Hezkuntza Curriculumuma eta Gorputz Hezkuntza ikertu ditu SIADECO Ikerketa Elkartek; SOHAT taldeak, Soin Hezkuntzaren Aldeko Taldeak; eta COALCAFID-ek, Euskal Herriko Soin Iharduera eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatuen Elkargo Ofizialak, eskatuta. Decathlon enpresak diruz lagundu du, eta hezkuntza arloko hainbat eragilek babestu dute, hala nola: Gasteizko Irakasleen Eskolak, Donostiako Irakasle Eskolako Zuzendaritza Taldeak, Gasteizko Jarduera Fisiko eta Kiroletako Zientzien Fakultateak, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI-ko fakultateak, KAIT Kirol Arlorako Iritzi Taldeak eta Xiba EHI (Euskal Herriko Ikastolak).

Euskal Autonomia Erkidegoan gisa horretako ikerketa egiten den lehen aldia da.

Curriculumuma eta Gorputz Hezkuntza ikergai

Gorputz Hezkuntzari irakaskuntza sistema arautuan eman beharko litzaiokeen garrantzia ezagutu nahi zuten. Horretarako, guztira, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 235 ikastetxetako 1.276 laguni galdetu zioten. Eskola Kontseilueta, zuzendariengana, irakasleengana eta gurasoengana jo dute. Baita, nola ez, DBHko 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko ikasleengana. Guztiei egin zaizkie galdera berak, eta haien erantzunak jaso eta txukun aurkeztu dituzte Siadecoko eta Sohateko kideek.

Eusko Jaurlaritzak 2007an onartu zuen Euskal Curriculumaren dekretua. Bertan, Gorputz Hezkuntzari eskaini beharreko ordu kopuruetan murrizketa nabarmena agindu zuen. Orduan sortu zen Sohatek, Hezkuntza sailak dekretua alda zezan lan egiteko. Garai

hartan, 75.000 sinadura bildu zituzten Soin Hezkuntzako irakasgaiaren alde.

Jendartean jasotako babes horrek bultzatu ditu Hezkuntza Curriculumuma eta Gorputz Hezkuntzaren gainean ikerketa sakona egitera.

Ikerketako datuak eskuan, alderdi politikoekin bilduko dira orain. Dekretua aldatzeko proposamena aldarrikatzeko bidean lagun izateko eskatuko diete alderdiei. Izan ere, Eusko Legebiltzarrera jotzeko asmoa dute.

Bestalde, herrialde guztiak kontuan hartuta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa dira Derrigorrezko Hezkuntza osan Gorputz Hezkuntzari denbora gutxiena eskaintzen dietenak. Hauexek dira, zikloka, herrialde bakoitzean Gorputz Hezkuntzari eskaintzen zaion ordu kopurua astero.

Derrigorrezko MAILAK	Gutxieneko ordutegia ARABA, BIZKAIA, GIPUZKOA			Gutxieneko ordutegia LAPURDI, NA-BEHEREA, ZUBEROA			Gutxieneko ordutegia NAFARROA GARAIA		
	GHko orduak	Orduak GUZTIRA	%	GHko orduak	Orduak GUZTIRA	%	GHko orduak	Orduak GUZTIRA	%
1	52,5	875	6,0	108	864	12,5	70	875	8
2	52,5	875	6,0	108	864	12,5	70	875	8
3	52,5	875	6,0	108	864	12,5	70	875	8
4	52,5	875	6,0	108	864	12,5	70	875	8
5	52,5	875	6,0	108	864	12,5	70	875	8
6	52,5	875	6,0	144	910	12,5	70	875	8
7	70	1.050	6,7	108	839	12,9	70	1.050	6,7
8	35	1.050	3,3	108	947	11,4	70	1.050	6,7
9	35	1.050	3,3	108	1.036	10,4	70	1.050	6,7
10	35	1.050	3,3	72	1.108	6,5	70	1.050	6,7
Orotara	490	9.450	5,2	1.080	9.160	11,8	700	9.450	7,4




Gorputz hezkuntza

Ikerketaren emaitzak atalez atal

Eragina arloka

2007ko Dekretuak irakasgai bakoitzean izan zuen eragina ezagutze aldera, zein arlo indartu diren eta zein ahuldu galdetu zaie. Erantzunetik ondorioztatu da, gehien indartu direnak atzerriko hizkuntzak eta informatika izan direla eta gehien ahuldu direnak, berriz, Gorputz Hezkuntza eta Arte Hezkuntza. Gainerako ikasgaien ondoan Gorputz Hezkuntza ahuldu egin dela esan dute, gainera, zuzendarien %69k eta irakasleen %68k.



Eragina lanpostuetan

Horrek guztiak, eragina izan du lanpostuetan, noski. Lanpostuen Zerrendaren bilakaera aztertuz gero, honoko ondorioa ikus liteke: Gorputz Hezkuntza arloan ikasturte batetik bestera 36 lanpostu galdu dira. Atzerriko Hizkuntzako Lanpostu Zerrendei dagokionean, berriz, 33 lanpostu gehitu dira.


	Ikasturtea		Ikasturte batetik besterako bilakaera
	2009-10	2010-11	
Haur hezkuntza	2.653	2.646	-7
Lehen hezkuntza	3.146	3.263	117
Euskara	40	30	-10
Ingelesa	567	600	33
Frantsesa	1	1	0
Gorputz Hezkuntza	430	394	-36
Musika	322	311	-11
Aholkularia	271	279	8
Pedagogia Terapeutikoa	569	568	-1
Entzumena eta Mintzaira	101	103	2
Ikastetxeak askatasunez erabakitzeko	0	534	534
Lanpostuen zerrenda organikoa guztira (EHAA-n argitaratua)	8.011	8.729	629

Iturria: Euskadiko Eskola Kontseiluaren 10/14 irzpena.




Indartu beharreko arloak

Ikastetxe bakoitzari bere egoera kontuan hartuz etorkizunera begira zein arlo indartu beharko lituzkeen galde-tuta, lehentasunen artean Gorputz Hezkuntza irakasgaia hirugarren nabarmendu da, Euskara eta Atzerriko Hizkuntzak irakasgaien atzetik.



Irakasgai bakoitzari desberdin begiratzen diete hezkuntza komunitateko partaideek. Hala, zuzendariek, irakasleek, gurasoek eta ikasleek beheko grafikoa jasotako moduan nabarmendu dituzte lehentasunak. Irakasle taldeak, bere aldetik, Gorputz Hezkuntza indartu beharreko bigarren arlo gisa baloratu du:


Indartu beharreko lehentasun arloak



Gorputz hezkuntza

Konpetentziak

Gorputz Hezkuntzaren bidez zein konpetentzia garatzen ote diren ere galdetu zaie. Konpetentzia guztien artean baloratuenak, ikasle- en autonomia eta ekimenerako gaitasuna eta jendarterako eta herritartasunerako gaitasunak izan dira nabarmendu direnak. Zehazki, inkestatuek norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasun garapenerari 8,64ko balorazioa eman diote eta jendarterarako eta herritartasunerako gaitasunari 7,60ko balorazioa.



Garapen pertsonala

Ikasleen garapen pertsonalarekin zerikusia duten alderdiei dagokienean, galdetutakoen ustez, Gorputz Hezkuntzak batez ere ahalmen fisikoak eta motorrak garatzen laguntzen du. Arlo horiei, 9,13ko balioa eman diote. Balorazio horien artean, altuenak, hemen ere, zuzendariak eta irakasleak emandakoak izan dira: 9,37koa eta 9,26koa, hurrenez hurren.





Soin hezkuntza Europan

Eta zer gertatuko ote da Gorputz Hezkuntzaren irakaskuntzarekin Europako herrialdeetan? Europako hainbat herrialdeetan derrigorrezko hezkuntzan Soin Hezkuntzarako orduak eta, irakasgai guztiak kontuan hartuta, guztira aholkatutako ikastorduak alderatuta aurkeztu dituzte ondorengo taulan.

	Gubierneko ordu-tegia EAE			Frantzia			Alemania			Finlandia		
	Ordu orduak	Orduak GUZTIRA	%	Ordu orduak	Orduak GUZTIRA	%	Ordu orduak	Orduak GUZTIRA	%	Ordu orduak	Orduak GUZTIRA	%
1	52,5	875	6,0	108	884	12,5	56	564	9,9			
2	52,5	875	6,0	108	884	12,5	85	662	14,4	228	2.418	9,4
3	52,5	875	6,0	108	884	12,5	85	706	12,1			
4	52,5	875	6,0	108	884	12,5	85	733	11,6			
5	52,5	875	6,0	108	884	12,5	66	790	8,3			
6	52,5	875	6,0	144	910	15,8	66	827	7,9			
7	70	1.050	6,7	108	838	12,9	66	865	7,6	285	3.008	7,3
8	35	1.050	3,3	108	947	11,4	56	846	6,6			
9	35	1.050	3,3	108	1.036	10,4	56	856	6,5			
10	35	1.050	3,3	72	1.108	6,5	57	821	7,0			
Orotara	480	9.450	5,2	1.080	9.160	11,8	677	7.598	8,9	513	6.327	8,1


Aitua: European Commission-Eurydice: "Recommended annual taught time in full-time compulsory education in Europe 2008-2010"

Egindako ikerketan jasotako datuen arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan derrigorrezko hezkuntzan 490 ordu eskaintzen zaizkio gutxienez Gorputz Hezkuntzari. Era berean, Frantziak 1080 ordu, Alemaniak 677 eta Finlandiak 513 eskaintzen dizkio. Derrigorrezko hezkuntzako ordu guztiekiko Gorputz Hezkuntzari eskaintzen zaizkion balio erlatiboari begiratu gero, hauxe ikus dezakegu: EAEn, %5,2; Alemanian, %8,9; Finlandian, %8,1; eta abar.

SOHATen proposamenarekiko atxikimendua

SOHATek jakin nahi zuen Hezkuntzaren Curriculumekeo helburuak lortzeko bermatu beharreko gutxienezko ordutegiari buruz egiten duen proposamenarekin (aste-an 2 ordu gutxienez) ados ote dagoen ala ez hezkuntza komunitatea. Proposameneko planteamendu guztiak balorazio nahikoa altuak izan dituzte: baxuenak 7,93ko balorazioa izan du eta altuenak 9,10eko. Lehen Hezkuntzarako egindako proposamenarekin ados dago %82 eta Bigarren Hezkuntzarako proposamenarekin, berriz, %72.

Proposatuetakoen artean, gehien baloratu dena Derrigorrezko Hezkuntzan Gorputz Hezkuntza ezinbesteko alorra izan behar duela izan da.




Aitua: SOHAT 2011.

Gorputz hezkuntza

Nola gauzatu proposamena?


Luzatutako proposamena zuzendariak baloratu dute gehien. Era berean, beharrezkotzat jo dute planteamendu hori dekretu bidez arautzea. Eta azpimarratzekoa da %71 agertu dela dekretuz egitearen alde.



Zein arlori murriztu orduak



LHn



DBHn

Baina, noski, Gorputz Hezkuntzari eskaini beharreko orduak gehitzekotan, beste alorren batzuei murriztu beharko zaizkie... galdera hori ere luzatu dute inkestan eta hona zer erantzun duten inkestatutakoek: Gorputz Hezkuntzarako astean gutxienez bi ordu bermatzeko Lehen Hezkuntzan erlijioari (%75) eta Bigarren Hezkuntzan Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako ikasgaiari (%33) murriztu behar zaizkie orduak. Eta kontuan hartzeko, zuzendariak, irakasleak eta ikasleak bat etorri dira orduen murrizketarako arlo horiek aukeratzekoan.



Zerk bultzatu zaituzte azterketa hori egitera?



Luis Larrañaga (Pizti)
Soin Hezkuntzako irakaslea eta
SOHATEko partaidea

2007an, Hezkuntza Curriculuma ezarri zenean, Hezkuntza Sailak ez zuen inolako argudio pedagogikorik eman Gorputz Hezkuntzako (GH) orduak murrizteko. Ez zuten argitu zergatik ikasle batek GHko helburuak lortzeko Derrigorrezko Hezkuntzan astean gutxienez 2,5 ordu behar zituen 2007ra arte eta zergatik 2007tik aurrera, soilik, 1,5 ordu, nahiz eta gaitasunen ikuspegi berriaren ondorioz GHren curriculuma puztu.

Entzun genuen defentsa argudio bakarra ikastetxeek duten balizko autonomia -2,5 ordu astean, izan zen-. Benetako autonomia bultzatu nahi izan balitz, ordea, zergatik ez utzi ordu kopuru guztien banaketa ikastetxeen esku Europako herrialde batzuetan egiten den bezala?

Hausnarketa egin eta arrazoi hauek aurkitu genituen murrizketen jatorrian: PISA azterketako emaitzen eragina, Zientziak indartzeko beharra, eta Atzerriko Hizkuntzari presentzia gehiago eskaintzeko asmoa.

Gure galdera lehen eta orain hau da: Zergatik zentratu da murrizketa

Gorputz Hezkuntzan? Posible al zen beste era batera egitea? Ba al dago ikerketaren bat Hezkuntza mailan edo Hezkuntza komunitate mailan GHren murrizketa justifikatzen duenik?

Gaur egungo errealitatearen arabera erantzuna ezezkoa da. Guk ez dugu ukatzen Zientzietan, Euskaran eta Atzerriko Hizkuntzan indarrak metatu behar direnik. Ziur gaude jakintza arlo guztien ordu banaketan gaur egun legez indarrean dugun banaketa baino banaketa orekatuagoak eta egokiagoak badaudela. Horrelako diseinua egin aurretik Administrazioak, Hezkuntza Sailak, guk burutu berri dugun ikerketaren antzekoa gauzatu beharko luke Hezkuntza Curriculuma diseinatzeko eta sakonki aztertu Hezkuntzako komunitateko eragile guztiekin zer indartu, zer bermatu eta nola.

Hutsune nabari horrek bultzatu gaitu gehien bat egin beharreko Curriculumen azterketa egitera. Lehenik murrizketaren neurriaren aurkako mobilizazioetara jo genuen: greba eguna, sinadura bilketa (75.000 sinadura GHren alde), hezkuntzako eragileen atxikimendua... Lan hori guztia aurrera eramanez ondoren, ikerketa sakonaren beharra ikusi genuen: igerilekura jauzia egiteko prest geunden, hezkuntza komunitatearen iritzia ezagutu nahi genuen nahiz eta jakin, agian, GH jakintza arloaren kontrako emaitzak eta iritzia jasoko zirela. Baina konfiantza genuen GH arloak jaso duen balorazio ona aterako zuela, ikasleen Derrigorrezko Hezkuntzan arlo oso esanguratsua delako eta oinarrizko gaitasunen lorpene-

an ekarpen adierazgarriak egiten dituelako ikasleen ebaluazio bileretan askotan agerian geratzen den bezalaxe.

Zein asmo duzue aurrera begira?

Ikerketa bukatu ondoren, mementuz, buru-belarri gabiltza gizarteari emaitzen berri ematen komunikabideetan.

Lan horrekin bukatu ondoren, Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordera joateko asmoa dugu bertan ikerketaren emaitzak azaltzeko.

Horrekin batera, talde politikoen ordezkariekin bilduko gara beraien iritzia jasotzeko eta GHrekin egin den bige gabekeria ikusaraziz Dekretuaren aldaketa bultzatzeko.

Lege aldaketa bultzatzeaz gain profesional onak izatera derrigortuta gaude. Etengabeko prestakuntza, berrikuntza eta koordinazioa bultzatzen ditugu GHko mintegietan eta eskoletako klaustruetan eta zuzendaritza taldeen aurrean GHko arloaren defentsa eta presentzia ziurtatze lanetan murgilduta gaude.

Ez dira erronka txikiak aurretik ditugunak. Espero dugu orain arte sostengatu gaituen itxaropenak, etorkizunetan, gaur egun ematen ari den gisako emaitza onak ematen jarraitzea.



nerea mendizabal

ELKARRIZKETA

Psikopedagogo eta haur masajeko hezitzailea

“Irakasleok oinarri afektiboa lantzen badugu, beste guztia berez etorriko da”



nerea mendizabal

E

“Zigorrak, mehatxuak eta xantaiak sentimendu desatseginak eragiten dizkigute denoi: zigortzen gaituztenean, ez gara eroso sentitzen, ez pozik, ez gustura, ez harro; baizik eta haserre sentitzen gara, ezintasuna sentitzen dugu, agian mendeku hartzeko gogoa izaten dugu, beldurra... Zigorrak funtzionatzen duenean ere, hau da, nik nahi dudana lortu dudanean ere, nola eta zer preziotan lortu dut?”

Psikopedagogo, haur-masajeko hezitzailea eta bi semearen ama da Nerea Mendizabal, eta, haurrak hezteko, zigorra, xantaia eta mehatxua gainditzeko proposamenak lantzen ditu, bai gurasoekin eta baita irakasleekin ere. Zigorrak epe laburrean funtziona dezake ere, luzarora helduen eta haurren arteko harremanean kalte egiten duela dio, eta, horren aurrean, komunikazio ez-bortitza proposatzen du.

Marshall Rosenbergek hainbat gatazkatan landutako ereduak ikastetxean lantzea proposatzen du; hau da, behatzea, sentimenduak adieraztea, beharrak identifikatzea eta eskaerak egitea.

Horretaz guztiaz ikastaro bat eman zuen *Hik Hasi*ren Topaketa Pedagogikoetan, eta ia 50 hezitzaile bildu zituen ikastaro horrek.



Iragan uztaileko ikastaroetara zenbat guraso, hezitzaile eta irakasle etorri zen kontuan izanda, zigorra gainditzeko premia dagoela ikusten da, ezta?

Ez gara eroso sentitzen zigortzen dugunean. Jakingo bagenu zigorra erabiliz gauzak aldatuko liriatekeela, eta denontzat ona litzatekeela, bada, igual askoz lasaitasun handiagoarekin erabiliko genuke. Baina, ikusirik zigorrak erabilia heldua ez dela gustura gelditzen, jasotzen duen erantzuna ere ez dela jaso nahiko lukeena, eta, gainera, haur horren eta helduaren arteko erlazioan horrek min egiten duela, garbi ikusten da zigorra ez dela gustuko metodoa. Gainera, eraginkortasunari begiratuta ere, zigorra ez da metodo eraginkorra.

Baina, zigorrak, zerbait izantekotan, eraginkorra izan behar du, ezta?

Hori da. Orduan konturatzen gara zigorra jarri, jartzen dugula, baina askotan ez dela betetzen; eta betetzen den kasuetan ere, hurrengoan zigor handiagoa edo mehatxu handiagoa bota behar diogula eraginkorra izan dadin, eta, orduan, esaten dugu: “Umea handitzen doan neurrian, zenbateraino handitu behardiot zigorra, zer egin behar dut azkenean?”. Beste batzuetan, berriz, zigorra jartzen dugu eta, gure aurrean ez, baina ezkutuan haurrak egiten du guk ez egitea nahi dugun hori; hori da benetan erakutsi nahi dioguna haurrari? Horrekin ere ez gara gustura gelditzen. Beste batzuetan, berriz, gogoratzen gara umetan ikaragarrizko zigorra jarri zigutela, baina ez gara gogoratzen zer egin genuen hori merezi izateko; zer

ikasi dut, orduan, zigor horrekin, zertarako balio izan dit?

Garbi dagoena da zigorrak, mehatxuak eta xantaiak sentimendu desatseginak eragiten dizkigutela denoi: zigortzen gaituztenean, ez gara eroso sentitzen, ez pozik, ez gustura, ez harro; baikik eta haserre sentitzen gara, ezintasuna sentitzen dugu, agian mendeku hartzeko gogoia izaten dugu, beldurra... Eta, azkenean, eskatzen ari garena egitea lortzen badugu ere, sentimendu horretatik, energia horretatik egingo du haurrak agintzen diogun hori, eta ez benetan hori egitea aukeratzen duelako, edo konturatzen delako guraso edo hezitzailearentzat garrantzitsua dela, eta kontuan hartu nahi gaituelako. Zigorren bidez ez da bide hori jorratzen. Zigorrak funtzionatzen duenean ere, hau da, nik nahi dudana lortu dudanean ere, nola eta zer prezioan lortu dut?

Zigorra beti erabili izan da, tradizioz eta historikoki. Orain, baztertu egin behar dute irakasleek, hezitzaileek edo gurasoek ohitura hori; nola hasten da baztertu hori, gelditu eta jabetzetik?

Bai. Lehendabizi, ohartu behar dugu 8.000-10.000 urte daramatzagula gizakiok era horretako hizkuntza erabiltzen: epaiak, mehatxuak, zigorrak, moralizatzea... eta era horretako eskaerak. Bestalde, orain, bat-batean, entzuten dugu ez dela oso egokia zigorra jartzea; eta esaten du irakasle edo gurasoak: "Ados, baina, orain, zer egin behar dut?". Zigorra oso erraietako gauza da, erabiltzen duenarentzat oso garrantzitsua da eskatzen ari den hori... Baina, zigorra erabili nahi ez badu, bitartekorik gabe gelditzen da pertsona. Batetik, ohartu behar dugu jaso duguna eta jasotzen ari garena, gehienetan, automatikoki irtengo zaiguna izango dela, nahiz eta konturatu zigorra ez dela egokia, eta zentzu guztia bilatu zigorra ez erabiltzeari. Hala ere, hori ez da nahikoa. Lehendabiziko gauza jabetzea da, baina jabetzea bakarrik ez da nahikoa.

Orduan, jabetu ondoren, tresnak bi-



latu beharko ditugu aurre egiteko. Eta hori izan da ikastaroaren asmoa. Argi dagoena da irakasle, hezitzaile eta gurasoek, denok, ziur jakingo bagenu, zigorra erabili gabe, beste metodo baten bidez haurren heziketa ziurtatuko genukeela, arduratsua izango litzatekeela haurra, bai ikasketei begira eta baita bere bizitzari begira ere, guztiok nahiago izango genuke bestelako metodo bat erabiltzea. Baina ez daukagu ziurtasunik, eta, gainera, tresnak falta zaizkigu, horren aurrean mahaia hankarik gabe gelditzen zaigu. Beraz, zigorra gainditzeari zentzua bilatzen badiogu, eta benetan bestelako heziketa bat nahi badugu, zer egin eta nola egin pentsatu behar dugu.

Eta zer egin dezakegu?

Lehenik eta behin, komunikazioa landu behar dugu. Adierazi behar dugu horrelako memento batean niri hezitzaile edo guraso naizen aldetik zer gertatzen zaidan, eta saiatu behar dut ulertzen umeari zer gertatzen zaion; nire ikuspuntutik "desegokia" den jokaera duenean, zerbait aldatzeko eskatzen diodanean, komunikazioa landu behar dugu.

Komunikazioa, enpatia... zein dira giltzak?

Alde batetik, komunikazioaz ari garenean, bi zati izan behar ditugu kontuan: batetik, niri zer gertatu zaidan; eta,

bestetik, haurrari zer gertatu zaion; eta horrek enpatia dakar, bestearen lekuan jartzea, eta ulertzen saiatzea. Gakoa da niri zer gertatu zaidan azaltzeko gelditzea, argitzea zer gertatu zaidan, eta, horretarako, neure buruarekiko enpatia behar dut. Neure buruarekiko enpatia agertzeko gai ez banaiz, larri nabilelako, blokeatua nagoelako, haserre nagoelako... orduan laguntza eskatu beharko dut, enpatia eman beharko dit norbaitek. Niri zer gertatzen zaidan ulertzen dudanean, orduan errazago ulertuko dut bestea, haurra.

Lehenengo geure buruarekin hasi behar dugu, beraz.

Baina hori horrela izateko, komunikazio ez-bortitzak ematen duen gakoe-tako bat hauxe da: jokaera guztien atzean, bai helduon edo bai haurren jokarenen atzean, emozioen atzean, judizioen atzean, horien guztien atzean, behar batzuk daude. Eta behar horiek bete gabe daudenean -edo beteta daudenean- jokatzen dugu beste modu horretan. Haur bat jangelan jatera derrigortzen badut, beharbada jakin nahi izango dut nire esku dagoen haur horrek egoki hazteko behar dituen elikagai guztiak izango dituen, eta horretaz ziur ez nagoenean hori lortzeko hainbat modu probatuko ditut: mehatxuak, zigorrak, derrigortzeak...

Aldi berean, haurraren jokaera bat aldatu nahi badut, ezin dut eskatu, adi-

nerea mendizabal

E

“Haurrak, ikasgai edo edukiak barneratzeko, segurtasun afektiboa eduki behar du, lehenik eta behin. Emozionalki ez bada sentitzen babestua, ulertua eta maitatua, ume horrek ez dauka oinarririk, eta ezingo ditu edukiak jaso eta barneratu, ezingo da kontzentratu, ezingo du ulertu... Horren inguruan ikerketa asko egin dira, eta oinarri afektiboaren eta eskolako emaitzen arteko korrelazioak erakusten dituzte.

”

bidez: “Ez egin hori berriro”. Askotan, jokaera aldatu nahi izaten dugu, jokaera hori eragiten duen arrazoari begiratu eta hura ase gabe. Horregatik gustatzen zait “betaurreko” horiek janztea, jokae-raren atzean zer dagoen ikusteko. Atzean dagoen hori ikusten badut, eta behar hori haurra eskatzen ari zaidan moduan asetzen badut, umeak utzi egingo dio niretzat desegokia den jokaera hori egiteari; aldiz, honelako zerbait eskatzen badiot: “utzi jotzeari”, “utzi garrasi egiteari”, “jarri lanean”, “ikasi hori”..., ezin du egin, haurrak ezin du hori egin. Eta egiten badu ere, koste handiaren truke egingo du, ez garelako ari haren behar-rak kontuan hartzen. Askok mugitzen den eta atentzioa zentratu ezin duen haur batentzat beharrezkoa da hori nahita egiten ez duela ulertzea eta onartzea, eta hortik aurrera, haur horerikiko atentzio dosia, segurtasun emozionala, autoestimua, babesa eskaintzeko bideak jorratu behar direla uste dut, zerbait egitera behartu edo medikazioaz haren jokaera kontrolatu baino.

Zigorraren bidez haurraren jokaera aldatzea lortzen dugunean, sarri, helduon onespena lortzea izaten da haurraren helburu bakarra, edo beldurragatik egiten du. Beste askotan, berriz, zigorra erabiliagatik ere, ez dugu lortzen haurraren jokaera aldatzea. Eta ez lortze hori, bai umearentzat eta bai hezitzailearentzat, oso frustragarria da, berak egin ezin duen zerbait ari baikatzaizkio eskatzen; konturatzen da gu haserrera zten gaituela, eta askotan errudun sentitzen da.

Oraindik hitz egiten ez duen haur batekin, hozka egiten edo jotzen duen haur batekin, nola komunikatu?

Haurra, bere erara, zerbait daukala ari zaigu esaten. Guk, aldiz, umea gaiztoa dela pentsatzen badugu, ez lukeela hori egin behar pentsatzen badugu, eta jarrera ezkor horretatik gerturatu bagatzaizkio umeari, gaiztoa dela eta ez duela hori egin behar adierazten ari gara, horrela jokatzera eraman duena ulertu gabe eta irakasleak edo gurasoak zer-

gatik eskatzen duen hori ulertu gabe.

Haurrak hozka egin duen kasuetan, edo jotzen duenean, adibidez, askotan ez daukagu ezer asko esateko, zerbait adierazten ari zaigu haurra, eta guk “betaurreko” horiek jantzi behar ditugu, zer komunikatu nahi digun ulertzeko; batzuetan, izan liteke oso haserre dabilela lagunak jostailua kendu diolako, edo zerbait gertatu zaiolako... Berresteko, bereak diren gauzak defendatzeko hartu duen jokaera bat izan liteke jotzea edo hozka egitea. Aldiz, irakasleak edo gurasoetako batek, horrelako jokaera baten aurrean, builaka esaten badiot: “Ez ezazu egin hozka, ez ezazu jo!”, era berean, ari gatzatzaizkio esaten: “Ez eutsi zeureari, ez zaitetz babestu”... Ikusi behar harko genuke zeinen ona den haurrak bere behar-rak ase nahi izatea. Egia da, asetzeko hartu duen modua ez dela guri gustatzen zaiguna, edo ume horrentzako etorkizunerako nahiko genukeena, eta horretan lagun diezaiokegu, berresteko, babesteko eta seguru sentitzeko baldintzak eskainiz, baina oraingoz komunikatzen ari da, espresatzen ari da, eta ez diezaiogun hori blokeatu.

Eta, haur baten ordean, 15 haur dituzunean gelan, hau da, irakaslea zarenean, eta haur bakoitzak bere behar-rak dituzunean, zer gako eman diezazkiokegu irakasle bati? Gakoek berdina izan behar dute irakasleentzat eta gurasoentzat?

Gakoak, gauzak ulertzeko moduak, bai. Egia da, irakasle baten lekuan, horrenbeste haur dauzkanean, baldintzak ez direla gurasoenen berdinak. Baina, aldi berean, denon behar-rak berdina dira, bai umeenak eta baita helduonak ere.

Haur batek mugitzeko beharra baldin badu, eta irakasleak planteatu duen ariketan mugitu ezin badu, nola kudea dezake egoera? Bada, berdina. Kontua da, irakasle lanean ari garenean, denborak mugitzen gaituela askotan; denborarik ez daukadanez, jokaera aldatu nahi izaten dugu: “Eseri eta geldi egon, eta hasi lana egiten”, iruditzen zaigula-

ko azkarragoa dela jokaera aldatzea, arrazoia bilatzea baino; baina, luzarora, irakasleak erabiltzen duen metodo horrek denbora gehiago eskatuko dio, eguna joan eta eguna etorri berdin ari baita ikaslearekin, arazoa ez baita konpontzen. Umea ulertu egin behar du irakasleak: “Zuri memento honetan ez zaizu piperrik interesatzen egiten ari garena, nahiago duzu mugitu, kanpora joan, zuk nahi duzuna egin...”; ikasle hori ulertzen ari gara era horretan, eta irakaslea adierazten ari zaio egoera nola ikusten duen, umea ulertzen duela; baina berak ere eskola eman nahi duela azaldu behar dio, haur horrek ere irakasleak planteatzen duen ariketa egin dezan nahi duela, harentzat garrantzitsua eta interesgarria izan daitekeelako; baina, noski, aldi berean urduri jartzen da irakaslea, beste 14 ume baititu gelan. Haurrarekin komunikatu egin behar du irakasleak: “Zuk autonomia eta mugikortasuna behar dituzu; eta nik lasaitasuna eta segurtasuna behar ditut eskola emateko orduan, eta zu ere ikasgai hau barneratzen joango zarela jakin behar dut. Nola egin dezakegu hori? Bururatzen al zaizu moduren bat?”. Haurra, irakasleak ulertzen duenean, lasaitu egiten da. Beharrak identifikatzen ditugun mementoan, beharrak ditugula aitortzen zaigun mementoan, lasaitu egiten gara, eta, ondoren, behar horiek asetzen hasiko gara; baina, askotan, egoera eza gutzea, irakaslea konturatzea haurrak zer behar duen, ikasle horrentzat ikaragarria da. Ez du esan nahi aldatu egingo duela jarrera, baina gertuago sentituko da irakaslearekiko, lotura horrek askoz ere azkarrago ekarriko baitu irakasleak iritsi nahi duen leku horretara. Eta ez bada iristen ere, lotura hori askoz goxoa izango da.

Errespetuan oinarritutako heziketa bilatu behar dugu, baina sistema ez ote doa, neurri handi batean, horren kontra? Hau da, gai-zerrenda bat dago, ordutegi bat, adin-tarte bat...

Bai, haurrak dituen beharrak entzutearen kontrako jarrera da hori. Ezen,

behar horiei leku ematen diegunean, haurra askoz egoera hobean egongo da, irakasleak planteatzen diona gustura egiteko.

Batzuetan nahi dugu denek, ikasle guztiek, memento berean gauzak berdin egitea, eta ez da posible izaten; aldiz, haurrarekin hitz egiten badugu, saioa programatzerakoan hark ere parte hartzen duela ikusarazten badiogu, eta, adibidez, lehenengo 10 minutuetan hark aukeratzen duen zerbait egitea garrantzitsua dela adosten badugu, 10 minutu “galduko” ditugu, baina ziurtatuko dugu gero, egin, egingo duela. Aldi berean, ikasi nahi dutena beraien interesekoa baldin bada, edo ikasteko erabiliko duten moduan ere aukeratzeko edo elkarrekin diseinatzeko aukera baldin badute, ez da zaila ikustea baldintza hobekak izango dituztela. Bestela, eguna joan eta eguna etorri, bere beharrak aldarrikatu egingo dizkit, eta pentsatuko du ez dizkiodala onartzen.

Baina irakaslea borroka horretan dago, ezta? Barne borroka handia sortzen dio irakasleari egoerak, programazioa bete behar du, baina berak beste modu batera egin nahiko lituzke gauzak.

Gure eskolak, sistemak, zer egin nahi du gure haurrekin? Programazioa betetzea da nik irakasle zereginetik dudan funtzioa? Galdetzen hasten garenean zein den eskolaren funtzioa, edo, irakasle naizen aldetik, gizartean zein den nire rola, askotan entzuten dugu irakasleak sinetsi egin behar duela ume horri emango dionak balioko diola bizitzarako, bestela, zertarako joaten gara eskolara?

Orduan, ados, ikasgai horiek emateak niri ziurtasun osoz erakusten dit haurra hurrengo ikasturtera prestatuta iritsiko dela, edo unibertsitatera joateko edo bizitzari aurre egiteko prestatuko dugula. Baina, bizitzari aurre egitea ikasgai zehatz batzuk ikastea da? Hori bakarrik da? Akademikoki eta kontzeptualki, nahikoa da ikasgaiak barneratzea bizitzari aurre egiteko, ala beharrezkoagoa da bizirik daukagunari kasu egi-



tea eta erlazionatzeko gai izatea? Golemannek esaten du bizitzako arrakastaren ehuneko hein handi bat norberak harremanak ezartzeko duen gaitasunetik datorrela, eta ehuneko hogeitengur datorrela jakintza akademikotik. Eta arrakastaz ari denean, zentzu guztietan ari da: profesionalki, pertsonalki, sozialki, familian... Orduan, gaur, hezkuntzan, zergatik ematen zaio hainbeste garrantzia matematikari, historiarri... Eta zergatik ez ditugu ukitzen komunikazioa, erlazioak, emozioak..., horrek emango badigu arrakasta?

Haurrak, ikasgai edo eduki horiek barneratzeko, segurtasun afektiboa eduki behar du, lehenik eta behin. Emozionalki ez bada sentitzen babes-tua, ulertua eta maitatua, ume horrek ez dauka oinarririk, eta ezingo ditu edukiak jaso eta barneratu, ezingo da kontzentratu, ezingo du ulertu... Horrelako egoeren aurrean, askotan, eskolaz kanpoko laguntza jartzen diogu haurrari, eskola partikularrak matematika eta ingeleserako, eta, azkenean, gehiegi eskatu diogu: “Ikasi egin behar duzu, geldi egon behar duzu, isilik egon behar duzu, errepikatu, etxerako lanak egin, ariketak egin...”. Eta haurrak ezin du, oinarri afektiborik ez duelako, ezin du. Horren inguruan ikerketa asko egin dira, eta oinarri afektiboaren eta eskolako emaitzen arteko korrelazioak erakusten dituzte, segurtasun edo oinarri afektibo hori dagoenean ikasketak arduratsua hartuko ditu irakasleak. Irakasle garenok oinarri afektiboa lantzen badugu, beste guztia bere kabuz etorriko da.

nerea mendizabal

E

**“ Autoritarismo
handi batetik
permisibitatera pasatu
gara.
Bada tarteko bide bat:
autoritatea behar dugu,
haurrak erreferentzia
batzuekin joka dezan.
Baina autoritate hori ez da
ni guraso edo irakasle
naizelako esleitzen zaidan
autoritatea, baizik eta
autoritate hori irabazi egin
behar da.
Boterea bestearekin
partekatu behar dugu, ez
da nire boterea edo
zurea.**

”

Baina, badirudi oinarri afektibo hori lantzea gurasoen lana dela, etxetik landuta ekarriko duela umeak.

Egia da ume batzuk segurtasun afektibo gabe etorriko direla eskolara, eta gabezia handiekin; eta, aldiz, oinarri afektibo hori duten haurrei ere onartu egin behar zaie hori badaukatela, aitortu, eta hortik abiatuko gara. Beharrak ase beharra dute haurrek, baina badute hori baino behar handiago bat: behar horiek aitortzea. Horregatik, oinarri afektibo hori ere aitortu egin behar zaie, eta ulertzen baditugu, errazagoa izango da ondorengo lana.

Irakasle askok diote eurak irakasleak direla, eta ez psikologoak. Ados, baina haurra egoera horretan dator eskolara, eta etxean ez badauka ere, irakaslearekin eraikitzen ari den harremanean segurtasun afektiboa eduki behar luke. Nola egiten du irakasleak lotura hori umearekin? Irakasleak ez ditu beteko etxean dituen gabezia horiek, baina harekiko harremanean bermatu egin behar du giro segurua izango duela, ulermena, afektuzko onarpena, haurraren erritmora egokitzea... Nola lortuko du irakasleak hori? Ulermenetik. Zeren etxean ez dauka, eta eskolan ere ez du edukiko giro segurua, eta, gainera, ikasketako eskatuko diogu.

Beste batzuetan, haurrak babesturik etor daitezke etxetik, baina eskolan senti dezakete ez daukatela segurtasun afektibo hori.

Bai, noski, eta txikiekin askotan gertatzen da hori: etxean badauka lotura hori, baina, eskolan, oinarria eraiki egin behar du andereñoarekin eta ez dakit zenbat ikaslerekin. Horri begiratu gabe, honelakoak esaten dira: “Umeak egokitu egin behar du, eta ohitu egin behar du”. Txikiekin bezala handiekin gerta daiteke hori: zenbait irakaslerekin lotura eraikitzea oso zaila egiten zaigu. Denok gogoratzen ditugu horrelakoak: “Jo, irakasle harekin irakasgai hura ikaragarri gustatzen zitzaidan; eta, hurrengo urtean, beste irakasle harekin, ira-



kasgai

bera ez zit-

zaidan batere gustatzen”. Irakasleak irakasleak espero duena bete ezin duenean, itxaropenak bete ezin dituenean, gauzak beste era batera ulertzen dituenean... blokeatu egiten du ikaslea, eta ez du sentitzen segurtasun afektiborik, eta ez du sentitzen ulermenik, eta, hortik abiaturik, ezin du atera irakasgai horretan irakasleak barruan daukan onena. Barruan duen gaitasun hori ateratzeko, oinarriak eman behar dizkio irakasleak umeari; eta gaitasun hori denek daukate: denok daukagu entzuteko gaitasuna, denok daukagu konfiantza, denok daukagu adierazteko gaitasuna, denok daukagu adimena, maitasuna, indarra... Kontua da nola aktibatua ahalmen horiek.

Irakasle asko ari dira balio jakin batzuetan hezten umeak, zigorrik gabeko heziketa landuz; baina, ume hori etxetik zigorren eta jarraibide horien arabera hezita datorrenean, konfrontazioa sortzen da.

Edo alderantziz; gerta daiteke etxean zigorrik gabe heztea gurasoek, eta eskolan zigorrik eta horrelako balioak transmititzea irakasleak. Hori ere askotan gertatzen da.

Irakaslearen kasuan, umea zigortzen dutenak gurasoak direnean eta irakaslea konfrontazio horretan sartzen denean, berriro ere begiratu behar dugu guraso horiek zergatik aukeratzen duten haurra zigorren bidez heztea; jorkaera horien atzean behar batzuk daude. Eta guraso horiek metodo edo joka-bide hori ari dira aukeratzen, ziurtatu nahi dutelako ume horrek etorkizun ona izango duela, balio jakin batzuen

arabera heziko dela... Azken batean, ume horrentzat onena nahi dute, eta horretarako bilatu duten modu bakarra hori da oraingoz. Orduan, irakasleak guraso horiekin topo egiten badu, eta honelako zerbait esaten badi: "Horrela ez zoazte inora, ez zarete konturatzen horrek ez duela balio, eta ni beste bide batetik ari naiz...". Horrelako jarrera hartzen badu irakasleak, gurasoak erasota sentitzen dira, eta sentitzen dute gauzak gaizki ari direla egiten, eta irakaslea epaitzen ari dela. Hor talkan eta konfrontazioan gaude, eta gauzak modu horretan esateak okertu egiten ditu; gurasoak ere enpatia behar du; irakasleak ulertzen badu, komunikatzen badu, gurasoen interesak entzuten baditu eta onartzen badu biek umearentzat onena nahi dutela eta barku berean doazela, eginda dute bidearen erdia; erasota sentitzen ez bada, irekita egongo baita modu berri hori ezagutzeko. Guraso bakoitzak ere ikusi behar du noiz dagoen prest metodo aldatzeko.

Gurasoak, hezitzaileak eta irakasleak batera daukaguna haurra da, eta bakoitzak nola egiten duen begiratzen hasten bagara, eta zeinek egiten duen ondo eta zeinek egiten duen gaizki... oker gabilta. Begirada umearengan jarri behar dugu, ez dugu pentsatu behar zein ari den ondo eta zein gaizki, zeren gatazkak hortik datoz, norberak berak egiten dituela gauzak ondo eta ondokoak gaizki pentsatzetik, eta ondokoak onena nire dela konturatu beharko lukeela uste izatetik. Hor dago gatazka. Begirada umearengan jartzen badugu, biok umearentzat onena nahi dugula ulertu behar dugu, eta hortik eraikitzen saiatu.

Eta alderantziz ere gertatzen da: gurasoak izan daitezke ulerberagoak, eta irakasleak, zigorra jartzen dutenak.

Hori da, badira beste ulermen-maila bat landu nahi duten gurasoak, eta ez daudenak ados irakasleek eskolan zigorren metodoa edo pentsatzeko txokoa erabiltzearekin. Hor ere, berdin berdinean, gurasoak ulerberak badira eta irakaslearen lana aitortzen badute, eta,



aldi berean, gurasoek azaldu badiote zergertatzen zaion umeari, nola ikusten duten, mehatxu egiteak kezkatu egiten dituela gurasoak, haurarengan ikusten dutenagatik umea blokeatuta etortzen delako... Irakaslea ulertzen saiatzen bagara, ikusten badugu beharbada ez zaiola batere erraza egiten programazioa betetzea, dituen baldintzak kontuan hartuta, haren intentzioa haurari ahalik eta ondoen erakustea dela eta ahal duen ondoen egiten ari dela... Konplizitatea, errespetua eta ulermena erabiltzen baditugu, errazagoa izango da, noski, irakaslearentzat ere.

Eta permisibitatearen kasuan, gurasoek inoiz ezetz esaten ez dutenean, araurik jartzen ez dutenean... nola jokatu behar du irakasleak?

Zeri esaten diogu permisibitatea? Kanpotik begira ari diren irakasleek edo gurasoek pentsa dezakete umeak nahi duena egiten duela, gurasoek dena uzten diotela, umea gainbabesten ari direla... Eta, beharbada, gurasoak beren irizpideen arabera jokatzeko ari dira. Ikusi behar da guraso horiek zergatik jokatzen duten guri permisiboa iruditzen zaigun eran, eta ea jokaera horrek haurari laguntzen dion ala kalte egiten dion. Hauraren behar emozionalak betetzea haurra gaizki ohitzea, gainbabestea, mugarik ez jartzea dela interpretatzen da sarritan, eta nik ez dut horrela pentsatzen.

Egia da autoritarismo handi batetik permisibitateara pasatu garelako, hau da,

"ni naiz heldua eta nik dakit eta kito, eta hau egin behar duzu" esatetik, "nik ez dut nahi niri egin didatena egitea, umeak nahi duena egiten du, mugarik ez dago..." esatera, eta hori ondorio larriak ekartzen ari da, autoritarismoak ekarri zituenak adinakoak, edo larriagoak, zeren umeak galduta daude, erreferentzia garbirik ez daukatelako. Umearentzat garrantzitsua da erreferentzia horiek edukitzea.

Bada tarteko bide bat: autoritatea behar dugu, haurrak erreferentzia batzuekin joka dezan. Baina autoritate hori ez da ni guraso edo irakasle naizelako esleitzen zaidan autoritatea, baizik eta autoritate hori irabazi egin behar da. Autoritate hori hauraren eta irakaslearen/gurasoen beharrak kontuan izango dituen eredu batetik etorriko da, ez zurearen ala nirearen arteko borrokatik. Botere-borroka hori kaltegarria da; izan ere, umeari mendeko izateko eskatzen diogunean, batzuek onartzen dute mendetasun-funtzioa, baina beste ume batzuek ez, eta errebelatu egiten dira, eta, orduan, irakaslearen/gurasoen gainean jartzen dira. Marshall Rosenbergek proposatzen digun komunikazio ez-bortitzeko ereduari, boterearekin ulertu behar dugu, hau da, boterea bestearekin partekatu behar dugu, ez da nire boterea edo zurea. Eta komunikazioaren, ulermenaren, enpatia bidez iritsiko gara horra.

Zer gertatzen zaio umeari etxean eredu bat duenean, eta eskolan beste bat?

nerea mendizabal

E

“Gurasook, hezitzaileok eta irakasleok batera daukaguna haurra da, eta bakoitzak nola egiten duen begira hasten bagara, eta zeinek egiten duen ondo eta zeinek egiten duen gaizki..., oker gabilta. Begirada umearengan jartzen badugu, denok umearentzat onena nahi dugula ulertu behar dugu, eta hortik eraikitzen saiatu.

”

Umeak zoratu egingo dira? Etxean ere zora litezke haurrak: aitak gauza bat esan dezake, amak beste bat, eta aitona-amonak beste bat; eta eskolan ere irakasleek gauza desberdinak esan ditzakete. Orduan, harmonia hori nahi izatea, estilo komun bat izatea, ederra litzateke, baina niri topiko bat iruditzen zait, eta frustraziorako eta gatazkarako bidea, ezinezkoa delako umea guk heziko genukeen bezala heztea nahi izatea. Ikus dezakegu bakoitzak dituen mugak desberdinak direnean, zer egin dezakegun muga horiek gerturatzeko, ulertzeko muga hori jartzen dudanean zein beharari den asetzen gutako bakoitza, baina ez garenean iristen muga horiek partekatzerara, ez gara iristen eta kito, nire mugak batzuk dira eta zureak beste batzuk; eta umeak ikasiko du nirekin honaino eta zurekin horraino joka dezakeela; bizilegia da. Helduok ere hori egiten dugu: lagun bati honaino eska diezaiogegu, eta beste bati, ez hainbeste.

Umeak mugak behar dituela uste dugu; orduan, haurra mugatu egin behar dugula ikus dezakegu, eta muga horietatik ezin garelako atera, eta, modu horretan denok ados egon beharko dugula haurra mugatzeko orduan. Niri gehiago laguntzen dit beste ikuspegi batek: hasteko, mugak behar dituela esatea baino, gehiago gustatzen zait erreferentziak behar dituela esatea: muga ezetzarekin, debekuarekin lotzen baita; bestalde, umeak mugak behar dituela diogunean, nik ez dut uste umearenak direnik eta horregatik mugatu behar dugunik; erreferentzia edo muga horiek nireak dira, eta umeak horiek ezagutzea eta kontuan hartzea nahi dut. Nireak bezala, irakaslearenak, aitarenak, amarenak, aitona-amonarenak... Hau da, jakin beharko luke zein diren nire erreferentziak; eta, era horretan, ez da gatazkan sartuko besteekin, ikusiko baitu amaren erreferentziak zein diren eta aitarenak zein diren, aitona-amonarenak zein diren eta eskolakoak zein diren. Erreferentzia horiek zenbat eta gertuagokoak eta komunagoak izan, orduan eta errazagoa izango da denontzat, guretzat eta, nola ez, umearentzat. Baina, kontua

ez da umeak mugak behar dituela, baizik eta umeak gure erreferentziak ezagutu behar dituela, eta horiek errespetatzea gustatuko litzaigukeela.


Irakasle asko guraso dira, eta, batzuetan, rol bat betetzen dute etxean eta beste bat eskolan: etxean ulerberak dira beren seme-alabekin, eta eskolan agintariak irakasleekin.

Agian, gauza bera gertatzen zaio bikotekidearekin edo gurasoekin. Umearekin komunikazio zuzena erraza egiten zaio, eta eroso sentitzen da, baina, espazio horretan beste bat sartzen denean, segurtasun-falta eta beldurrak pizten zaizkio. Eskolan, irakasleak beldur asko izan ohi ditu, segurtasun-falta handia: gai izango ote den dagokion rola betetzeko, hurrei eman beharreko irakasgaia emateko, lankideek edo zuzendariak nola ikusiko duten hari dagokion rolean... Hori guztia lortzeko erabiltzen den bide bat autoritarismoa da, zigorra, agindua eta buila; egoera horretan irakasleak ez daukalako beste tresnarik. Bai hurrekin eta bai bere buruarekin eroso sentitzen denean, eskolako esparruan ere ulermena erabiliko du, eta zigorra alboratu egingo du. Irakasleari ez zaio gustatzen mehatxuak eta zigorrak erabiltzea. Zer gertatzen zaio irakasleari, gelara sartzean, ulermena, komunikazioa, konexioa... alde batera uzteko? Eta urduri eta erne jartzen bada? Zer gertatzen zaio? Geure barruan galdera horri erantzuten diogunean argibide asko izango ditugu.

Irakasleen artean askotan entzuten dut beraiek beste era batera jokatzeko gogoia dutela, baina irakasleak gainjarriko ote zaizkien, gela aztoratuko ote duten edota ondoko irakasleek nola begiratuiko dieten beldur direla; beste irakasleek zer pentsatuko ote dute, haur bat eskolan, adi egon beharrean, 10 minutuz jolasean badabil...? Irakasle horren zeregina epaitu egingo dute, eta irakasleak, umeak bezala, onartua izan nahi du, eta, batzuetan, berak jokatu nahi izango ez lukeen bezala jokatzeko du, onarpen edo balioespen hori bilatzeko.

centroderecursos@alboan.org

ELKARTASUNEAN HEZTEKO BALIABIDEAK ESKURA, KLIK BATEAN



Unitate didaktikoak
jolas kooperatiboak
musika pelikulak...

<http://centroderecursos/alboan.org>



Material guztiak hemen har ditzakezu

Bilbao
Aita Lojendio, 2
Tel. 944 059 567

Iruñea
Avda. Barañain, 2
Tel. 948 231 302

Laguntzaileak:



Unanu eta Zarautz, kantu batek loturik



Kostakoa bata, mendialdekoa bestea. Gipuzkoan Zarautz, Nafarroan Unanu. Ia 100 kilometro daude herri batetik bestera. Baina lehen baino gertuago daude orain. Kantu batek elkartu zituen bi herriak. Josu Txapartegi *Txapas* irakasleak Unanuko hamaika toponimorekin abesti bat sortu zuenean hasi zen guztia; Zarauzko Salvatore Mitxelena ikastolako 6 urteko haurrei irakatsi zien abestia, eta autobusez Unanura joan ziren ondoren haurrak, toponimo horien kokagunera, hain justu, apirileko egun eguzkitsu batean.

Joxe Agustin Gartzandiaren liburu batean izan zuen Txapasek Unanuko 50 bat leku-izen horien berri. Duela ia 30 urte idatziriko liburu hartan, umetako gauzak kontatzen zituen Gartzandiak, Unanuri buruzko gauzak, ipuinak, istorio zaharrak... Eta lan horretan ageri ziren leku-izenekin kantu bat egitea bururatu zitzaion Txapasi, leku-izen politak iruditu baitzitzaizkion. Lehenik, “s”, “ts” eta “tx” txistukari frikari eta afrikariak zituzten leku-izenak aukeratu zituen abestia osatzeko, baina, motzegi gelditzen zitzaionez, beste hots batzuk zituzten izenak ere erabili zituen kantuan. Toponimo horiez gain, Unanuko inauterietako *Mamoxorroei* buruzko kantu bateko ahapaldi bat ere erabili zuen Txapasek, kantu berria sortzeko.

Handik aurrera, ideiak sortzen hasi ziren: lehenik, ahapaldi bat irakatsi zien 6 urteko haurrei, eta, gero, pentsatu zuten Unanura joatea kantatzera. Kantu osoa ikas zezaten, hitzak etxera eraman zituzten haurrek, eta, irakasleek azaldu zuten, gurasoak guztiz harrিতuta gel-

ditu ziren, haurrek ikasi beharreko abestia 50 leku-izeneko zerrenda bat baitzen ia-ia! Hilabetean ikasi zuten haurrek abestia, oso-osorik, igerilekura bidean abesten baitzuten haurrek.

Zarauztik Unanura eginiko bisitaldian, herriko adineko jendeari kantatu nahi zioten haurrek, beren herriko oroimena ekarri nahi zieten gogora, eta ea zenbat toponimo oroitzen zituzten jakin nahi zuten. Baina, adinekoekin egingo zuten jolasaz gain, haurrekin ere partekatu nahi zuten kantua zarauztarrek. Alabaina, Unanu 100 bat biztanleko herria da, eta lau ume bakarrik daude herrian; ondorioz, Etxarri Aranazko eta Arbizuko ikastetxeetako haurrekin partekatu zuten eguna gipuzkoarrek, bi ikastetxe horietara joaten baitira Unanuko lau umeak.

Lehenik, Etxarri abestu zuten hain beste prestatu zuten kantua, eta hango eskolako haurrei galdetu zieten abestia aipatzen zituzten 50 toponimoetatik zein ezagutzen zituzten; horietatik 12 ezagutu zituzten haurrek. Etxarriko eskolakoek bertsoa eta ikastolakoek koplak eskaini zituzten bisitan etorri zitzaizkien umei.

Azkenik, Unanura iritsi ziren, izenez haurrentzat horren ezagun bilakatu ziren lekuetara, hain justu. Han, Arbizuko ikastolako haurrak eta gurasoak zain zituzten, eta unanuarrak ere bai, noski, heritar guztiak baitzeuden gonbidatuta arratsaldeko lehen orduan herriko elizan egingo zen ekitaldira.

Gartzandiaren liburuan jasotako Unanuko 50 leku-izenekin Txapasek sorturiko abestia kantatu zieten haurrek herriarrei, eta, horren ondoren, adinekoek galderak egin zituzten umeek, bai

leku izen horiei buruz eta baita herriko euskalkiari edota ohiturei buruz ere. Adinekoek 50 leku-izenetatik 50ak ezagutzen zituzten, eta gustura erantzun zieten 6 urteko haurrek egin zizkieten galderari.

Horren ondoren, Mamoxorroak sartu ziren elizan. Mamoxorroak Unanuko inauterietan bakarrik agertzen dira, baina salbuespen berezia egin zuten, kantua bidez dei egin baitzieten haurengana agertzeko.

Nafarroako mendialdetik osterara Zarauzko kostara eramango zituen autobusa hartu aurretik, beste hainbat kantu eskaini zizkieten Zarauzko haurrek unanuarrei, eguna amaitzeko, eta, maskor eder batekin batera, Txapasek sorturiko abestiaren hitzak eta partitura eman zizkieten Unanuko herriari.

Kantu bat, bi herrien arteko ezagutza eta oroimen ederra utzi zizkieten parte hartu zuten ikasle-irakasleei eta unanuarrei.



Haur-Eskolak eraldatzeko garaia da



Haur eskoletako langileen protestek eta grebek egunkarietako orri ugari hartu zituzten iazko ikasturtean, haur eskoletako langileen lan-hitzarmena ez baitzuten bete Isabel Celaá Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak eta Haurreskolak Partzuergoak, LAB, STEE-EILAS eta ELA sindikatuen arabera.

LAB sindikatura jo du *Hik Hasi*k, haur eskoletako langileen eskakizunak eta haur eskolen gaur egungo egoera ezagutzeko, langileen % 70 ordezkatzen baitu sindikatu horrek. Sindikatuen arabera, haur eskolak berrantolatzeke garaia da, hezitzaileen lanari zentzu pedagogikoa eman behar baitzaio.

Gaur egun, guztira 220 haur eskolatik gora daude Araban, Bizkaian eta Gi-

puzkoan, Haurreskolak Partzuergoaren barruan, eta 1.500 haur-hezitzaile inguruk egiten du lan eskola horietan. Zazpi urte pasatu dira Eusko Jaurlaritzak, hainbat udalekin batera, *Haurreskolak Partzuergoa* sortu zuenetik, eta, orduz geroztik, eraikinen mantentze lanak, garbiketa eta zaintza udalen esku daude haur-eskola horietan; langileen kudeaketa, berriz, Hezkuntza Sailaren menpe dago.

Alabaina, haur-eskoletako langileak lan-arlokoak dira, eta, Hezkuntza Saileko langileen baldintzekin alderatuta, haienak eskasagoak dira, lanorduei, soldatari, baldintzei edota prestakuntzari dagokienez. Gaur egun, LAB, STEE-EILAS eta ELA sindikatuek utzia dutelan-hitzarmenaren negoziazio mahai.

Bien bitartean, haurren bizitzako lehen etapaz arduratzen diren langile horiek argi dute eskaintzen dituzten heziketa eta zerbitzua eskasten ari direla, berorien baldintzak eskasten doazen heinean.

Leire Garrorekin eta Josune Belamendiarekin bildu da *Hik Hasi*, eta biek

ala biek diote haur-eskolen egoera hobetzeko lehen urratsa haur-eskoletako hezitzaileen lana aitortzea dela. “Heziketa-munduan egiten dugu lan; ez gara ipurdi-garbitzaileak; eta hori aitortzen ez zaigun eta geure buruari aitortzen ez diogun bitartean, ez gara jabetuko pertsona baten bizitzan zeinen garrantzitsua den Haur Hezkuntzako lehen ziklo hori”, dio Belamendiak.

0-3 zikloaren garrantzia aitortzeko, bigarren urratsa ziklo horretan dirua eta baliabideak inbertitzea da, haurren heziketako lehen ziklo hori trinkotu egin behar dela uste baitute Garrok eta Belamendiak, hezkuntza-ikuspegitik proiektuak garatu ahal izateko ezinbestekoa delako.

Lan-baldintzei dagokienez...

Gaur egun, haur-eskoletako hezitzaileek 7 ordutik 6,15 hurrekin pasatzen dituzte; Haur Hezkuntzako langileek, aldiz, 5 ordu pasatzen dituzte hurrekin. Bitarte horretan, haurren zaintza, loa eta elikadura haur-eskolako langileen esku dago, hezitzaileen lana, hezigarria izateaz aparte, behar duten laguntza ematea ere badelako. Horren ondorioz, langileek salatu dute denbora gutxiegi dutela prestakuntzarako, hots, pentsatzeko, hausnartzeko, jorratu beharreko ildo pedagogikoaz eztabaidatzeko eta hori guztia sendotzeko. “Heziketa integralean sinesten dugu, elikadura, loa eta zaintza ere bere gain hartuko dituen heziketan sinesten baitugu; baina, horretaz hausnartzeko eta ondo egin ahal izateko, hurrekin pasatzen ditugun orduak gutxitu egin behar ditugu”, dio Belamendiak. “Ziklo horren garrantzia azpimarratu eta jen-

darrean zabaldu nahi dugu”, dio Garrok, “0-3 urte bitarteko bizitza-tarte horretan, balioak, jarrerak eta oinarritzko gaitasun eta trebetasunak eskuratzen baititu haurrak; hemen, lan pedagogiko handia egiten dela aldarrikatzen dugu”.

Haur Hezkuntzako bi zikloetako langileen funtzioen artean ez dago alde handirik gaur egun; alderik izatekotan, bakoitzak betetzen dituen funtzioen kopuruan daude aldeak, 0-3 etapan lan egiten duten hezitzaileek besteek baino funtzio gehiago betetzen baitituzte, haurren garbitasunaz, elikaduraz eta atsedenez arduratu behar dutelako. Egoera horretan, lan bera eta funtzio berberak egiteagatik lan-baldintza berberak eskatzen dituzte haur-eskoleta-koek. Hezitzaileek ezinbestekotzat jotzen dute 0-3 etapa Hezkuntza Sailaren barneko esparrutzat hartzea, eta ez Lan Sailaren barneko azpisailtzat. “Lan-mundua eta familia bateratu beharra dago, ados gaude horrekin; baina hori adin guztietan egin behar da, ez 0-2 edo 0-3 zikloetan soilik”, dio Garrok.

Ikuspegi pedagogikotik...

Lan-hitzarmeneko eskakizunek lotura zuzena dute langile horiek haur-eskoletan gauzatu nahi duten proiektu pedagogikoarekin. Horregatik, haur eskolen eredu berria sortzeko unea orain dela ikusten dute hezitzaileek. Helburuei begiratzuz gero, LABeko hezitzaileen helburua ez da ez 0-2 etapa eta ez 0-3 etapa, 0-6 etapa baizik, eta horren barruan kokatzen dute 0-3 zikloa. Belamendiaren arabera, 0-3 zikloa puskatzea “atzerapauso handia” izan zen, “akats handia”; “ikuspegi pedagogikotik, hankamotz gelditzen da fase hori, proiektuak garatzerakoan”. Hezitzaileen iritziz, zikloa hausteak berak erakusten du administrazioak ez duela etapa horretan sinesten.

0-6ko etapa horren barruan, eta haur eskola egoki horren bila, kalitatez-



ko hezkuntza eskaintzeko lehen urratsa hezkuntzaren lehen subjektua haurra dela onartzea da, bi hezitzaileen aburuz. “Beti ere 0-6 etaparen barruan, 0-3 zikloa behar dugu, eta haurren beharrei begira egon behar du ziklo horrek, ez familien beharrei edo administrazioaren nahiei begira”, argitu du Garrok.

Proiektu pedagogikoak garatu ahal izateko, haurren eta langileen eskubi-deak batuko dituen eredu hezigarri baten aldeko apustua egiten dute LABeko hezitzaileek. Hori guztia lortzeko, sindikatuak puntu hauek garatu behar direla dio: batetik, haur-eskolen ordutegia zein egutegia berrantolatuta egin behar dira; hezitzaileen lan-orduak eta horien antolaketa ere berrikusi egin behar dira; ratioak aldatu egin behar dira, eta ikasgeletan binaka egin behar da lana; heziketa integrala ahalbidetuko duten baliabideak bermatu behar dira; hezitzaileek eta kudeaketaren alorreko langileek, beren profesionaltasunari eusteko, prestakuntza espezifikoa jaso behar dute; eta, azkenik, koordinatzaileei dagokienez, horien funtzioek gero eta hezigarriagoak izan behar dute, eta, beraz, lan horiek aurrera eramateko, behar duten denbora eta trebakuntza eskaini behar zaizkie.

Horrekin loturik, partzuergoko eskolen eredu propioa finkatzeko, zentro horien zerbitzuak kalitatezkoa, publikoa, euskalduna eta doakoa izan behar du. Gaur egungo eskaintza garestiegia

dela begitantzen zaie bi langileei, eta, horren ondorioz, argi ikusten dute haur guztiei ez zaiela hezkuntza aukera bera bermatzen. Gaur egun, 5 orduko edo gutxiagoko zerbitzua aukeratuz gero, 151 euro ordaindu behar dute familiek hilean; eta 198 euro, gehieneko 8 orduko egonaldia aukeratzen badute. Eta hortik kanpo dago bazkariko gastua. Horren aurrean, haur eskola guztietan jantoki-zerbitzua abian jartzea eta finantzazio irizpideak ikastetxe publiko-eta gainerako jantokietakoekin homologatzea eskatzen dute.

Haur-eskolak Hezkuntza Sailaren barnean egon behar duela diote, baina tokian tokiko udalen esku, udalak “ezinbesteko elementu” direla uste baitute hezitzaileek. Garrok, era berean, “familiekin zuzeneko eta errespetuzko harremana” izango duen eredu bilatu behar dela dio, eta haurrentzako espazio egokiak eskaini behar direla, “gaur egun, leku askotan, lekua arazo bihurtu baita”.

Honaino iristeko, ibilbide luzea egin du Josune Belamendiak, 0-3 bitarteko haurren heziketan, eta bidea “oso gogorra” izan dela dio. Gaurdaino, hezitzaileen lan-baldintzetan aurrera egin dela dio, baina azken aldirian atzerakada ugari izan direla, murrizketei dagokienez. Ibilbide horretan, 0-3 zikloa puskatzea “frustrazio latza” izan dela dio. “Honaino iritsi ondoren, eredu berria ezartzeko garaia da”, dio.

Zein gomendio izan beharko genituzke kontuan eskola egokitze aldian



Egokitze aldiak 1 eta 3 urte bitarteko haurren artean duen zentzua eta garrantzia hobeto ulertzeko beharrezkoa da lotura afektiboa eta atxikimendua aipatzea.

Bizitzako lehen urteetan haurren eta amaren artean sortzen den harreman estuaren jatorria, haurrak bere erreferentziazko atxikimendu pertsonetara lotuta sentitzearen beharrak eragiten du. Lotura horren bidez, izan ere, haurren garapen eta heltze egokia gertatzen baita. Haurraren eta amaren gertatzen diren atxikimendu joakaerei esker lotura hori sendotuz joan daiteke.

Ikuspuntu horretatik, atxikimendua eta lotura afektiboa gizakiaren oinarrizko beharrak dira, gosea eta egarria bezain oinarrizkoak. Lotura horretan, haurrak pertsona zehatz batekin harreman berezi bat eratzen du. Hori, "atxikimendu irudi nagusia" izango da, eta gehienetan ama izaten da. Lotura nagusi hori haurren ongizaterako guztiz beharrezkoa da, jaiotzeko unean gizakia heldutasunik gabe eta mendetasun egoeran aurkitzen baita.

Haurren eta amaren arteko lotura afektiboak aztertzeko, utero barneko



Ivan LOPERA

PSIKOLOA ETA PSIKOTERAPEUTA

bizitzaraino egin behar da atzera. Han, umekia jada amari lotuta dago zilbor-hestearen bidez eta harekiko lotura afektibo indartsua sortzen ari da. Hala, umekia gai da amaren ahotsa ezagutzeko, haren emozioetara erreakzionatzeko, eta abar.

Jaiotzaren ondoren, atxikimendu jokaerak arian-arian garatuz joango dira honokoen arabera:

- Amaren irudiaren oroitzapena.
- Irudi horren ezagutza ikusi edo nabaritzen duen bezain laster.
- Irudi horrek haur bakoitzarentzat irudikatzen duena elikadura, ziurtasuna,

na, babes, maitasuna eta abar mailan.

Atxikimenduaren funtzioa ezagutzeko kontuan izan behar da animalia ahuletan (haurren heldutasun eza) agertzen dela eta txikiaren segurtasunerako balizko arrisku egoeretan eta alarma egoeretan azaltzen dela.

Etologiaren ildo jarraituz, atxikimenduaren funtzio nagusia harrapakarien aurkako babes da –hau da, bizi-raupena– benetako arrisku baten aurrean zein galzoriaren aurrean. Ondorioz, beldur erantzunaren intentsitatean alde handia dago konfiantza eta ziurtasuna ematen duen pertsona bat baldin badago aurrean edo ez.

Atxikimendu jokaera hori jaiotzetik 3 urte bitartera luzatzen da, adin horretako haurrak ez baitu objetuen kontzientziarik; hau da, hark uste du zerbait bere begien aurretik desagertzen bada gerta litekeela berriro ez agertzea.

Horrek esan nahi du, adin horretako haur bat bat-batean ingurune ezezagun batean utzi eta alde egiten badugu, aldi berean atxikimendu pertsona nagusiari deitzeko jokaera piztuko zaiola hura itzul dadin. Gehienetan hori etengabeko negarraren bidez egiten du, ama itzultzen denean lasaitzen dena

edo geratzen dena haurra konturatzen denean negar asko egiteagatik ere ama ez dela itzultzen. Kasu horretan, haurraren nolabaiteko egokitzapena gertatzen da ingurune berrira eta hango pertsonetara.

Egoera hori sahiestu eta haurraren ongizatean dituen ondorio ekidiezinak baztertze aldera, beharrezkoa da egokitzapenaldi egokia egitea. Aldi horretan, beharrezkoa da atxikimendu pertsona nagusia hezitzailearekin harremanetza. Hartara, haurrak ez du hartuko ezezagun gisa eta ez da egoera okertuko, atxikimendu jarrerak lehertuz; izan ere, eskola ingurua berez ingurune arrotza da haurrarentzat.

Era berean, beharrezkoa da haurrak bere erritmoan eskolako ingurua esploratzea bere atxikimendu pertsona nagusiaren aurrean. Era horretara,

haurrak jada ez ditu mehatxu eta arriskutsu gisa hartuko inguru eta heldu berririk eta egokitzapen egokia gertatuko da. Horrek guztiak ahalbidetuko du haurra atxikimendu pertsona nagusitik arriskurik gabe askatzen joatea eta urrats oso garrantzitsua izango da bere autonomia lortze aldera.

Hala, eskolarekin izango duen lehen topaketa berak erdietsitako lorpena bilakatuko da, behartutako ezer izan gabe. Ondorioz, eskolarekiko lehen esperientzia atsegina barneratzea ahalbidetuko du eta familia eta eskola giroaren artean gerta litekeen haustura saihestuko du bien artean jarraitasun eta egonkortasun loturak eraikiz.

Egokitzapen prozesu hori laguntze aldera, bereziki garrantzitsua da esandako guztiaren ondoan hainbat gomendio kontuan izatea:

Atxikimendu jokaera jaiotzetik 3 urte bitartera luzatzen da, adin horretako haurrak ez baitu objetuen kontzientziarik; hau da, hark uste du zerbait bere begien aurretik desagertzen bada gerta litekeela berriro ez agertzea.



Hainbat gomendio

1. Komenigarria da pertsona bera izatea egokitzapen aldia egiten duena, haurraren egonkortasuna eta segurtasuna ziurtatzeko. Egokiena, pertsona hori bere atxikimendu pertsona erreferentziala izatea litzateke; ezinezkoa bada, komenigarria da alde aurretik haurrari esatea egun horretan norekin joango den eskolara eta nor joango zaion bila.

2. Komenigarria da erreferentzia pertsona zenbait egunez gelan egotea leku jakinean. Zehaztu beharreko egun kopurua oso aldakorra izan daiteke, gomendagarriena, iraupena haur bakoitzaren erritmoaren arabera izatea da. Garrantzitsua da haurra espaziora joatea behartu beharrean bera bere kasa askatzea. Une horretan gertatuko da, hain zuzen, erreferentzia pertsonaren eta hezitzailearen arteko elkarrekintza; azken hori, haurrarentzat arrotza izateari utziko diolarik.

3. Egunduen ondoren, erreferentzia pertsona pasilloan edo zentroak aurreikusita duen beste leku batean gera daiteke. Batez ere, haurraren begi bistan eta eskura dagoen lekua izan behar du. Gainera, haurrari alde aurretik esango zaio “ama hor dagoela”.

Haurra espaziora joan ondoren atxikimendu pertsona dagoen lekura itzultzen bada onartu egiten zaio, entzuten zaio eta kontsola dadin ahalegintzen da, baina karga emozional gehiegi eman gabe. Garrantzitsua da haurrak sentitzea noiz dagoen prest banaketarako eta erreferentzia pertsonak jakinaraztea, horretarako agurtzeko unea ez luzatuz.

4. Garrantzitsua da ulertzea haurren artean gerta daitezkeen jarrera bortitzen aurrean hezitzaileak esku hartu behar duela eta ez erreferentzia pertsonak. Era horretara, hezitzaileak garrantzia hartzen joango da haurraren aurrean eta “botere eskualdatzea” erraztuko da.

5. Kosta hala kosta “ez ezazu negar egin amatxo triste joango da-eta” gisako xantaia emozionala edo “ez ezazu negar egin amatxo berehala dator-eta” gezurra ekidin behar dira. Izan ere, inguru berrira egokitzeko aukera egokia oztopatzen ariko baikinakeke, nabarmen.

6. Utz diezaiogun haurrari bere gogokoa duen jostailua, familiari lotuko dion etxekoa duen zerbait (txupetea, peluxea, zapia...) eramaten, hala nahi badu. Zentzu horretan, funtzioa da haurrarentzat trantsizio-objektu horrek duen garrantzia ezagutzea eta egokitzapena egiteko garaian lagungarri gerta dakigukeela.

7. Ez da garai ona haurraren bizitzan aldaketa gehiago sartzeko (pardela kendu, logela aldatu...). Komenigarria izango da egokitzapen garaia gaintu arte itxarotea.

Honaino esandakoez gain, eskolarekiko lehen kontaktu horretan erreakzio eta jarrera gisa epe motzean ager daitezkeen hainbat efektu kontuan izan behar dira. Efektu horiek, nagusiki, bi multzo hauetan laburbil daitezke:

Aldentze emozionala: eskolatik irten eta bere erreferentzia pertsona ikusterakoan haurra hotz agertzen da eta zenbaitetan izkin egiten diola dirudi. Egoera horrek egunak iraun ditzake eta egoera normalera itzultzea mantsoa gertatzen da. Itzulera hori lagunduko du helduak lasaitasuna mantendu eta jokaera hori egoki testuinguratuzeko gai den heinean.

Gertu egoteko exigentzia: bere erreferentzia pertsona berriro ikusterakoan haurra lehen baino gehiago atxikitzen da eta ez du gogoko zentimetro bat ere aldentzea. Erreferentzia pertsonak lasaitasunari eusten badio, eta “antsietate atxikimendu” hori baimentzen badio, jokaera epe laburrean amaituko da eta normaltasunera itzuliko da dena. Kontra, atxikimendu pertsonak ez badu baimentzen eta jokaera hori arbuiatzen badu, aurkako jokaerak sor daitezke bide batez.

TEKNOSKOPIOA 2011-2012 martxan!

14 eta 18 urte bitarteko ikasleentzako
proiektu-lehiaketa



WANTED: Ikertzaileak!

Sariak

- Proiektu onenaren saria:
tableta bana eta Tecnalía Korporazioan egonaldia
- Komunikazioren saria:
tableta bana eta Elhuyarran produktu-sorta bana

Eman izena:
<http://teknoskopioa.elhuyar.org>

Antolatzailea:



Babesleak:



Laguntzailea:



Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoak euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

azaroa

berriak

UEUK "Hobetuz" programan ikastaroak eskainiko ditu



Hobetuz-ek, Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioak, EAEko langile eta langabetuentzako DOAKO formazioa kudeatzen du. Aurten lehenengoz UEUK lau ikastaro eskainiko ditu, euskaraz. Are gehiago, aurten lehenengoz ere langabetuek doako formazioa jaso ahal izango dute.

UEUK eskainiko dituen lau ikastaroak:

1. Bileren dinamizazioa

Ikastaro praktikoa honetan, bilerak planifikatu eta dinamizatzeko teknika erraz eta eraginkorrak landuko dira.

* *Eli Moreno Carrillo*, Psikologoa, bitartekari familiarra eta sexologoa. Gaur egun orientatzaile lanak eta formazioa tartekatzen ditu.

2. Ideiak sortu eta antolatzeko teknika: buru-mapak (mind-mapping)

Hitzak, ideiak, egitekoak edo bestelako elementuak errepresentatzeko diagrama bat da buru-mapa. Ideiak sortu, bisualizatu, antolatu eta egituratzeko erabiltzen dira, oso lagungarriak diralarik ikasteko, informazioa antolatzeko, arazoak ebatsi edota erabakiak hartzeko.

* *Eleder Aurtenetxe Pildain*, Sormen arloko trebatzaile eta aholkularia. Antolaketa arloko ingeniari-tza ikasketak. Unibertsitateko irakasle izana. Bilbo Hiria irratian "Berbaz" elkarrizketa-saioaren gidaria.

3. Linux erabiltzen hasi: Ubuntu-rako sarrera

Azken urteotan software librearen erabilera asko zabaldu da, gure egune-

rokotasunerako aplikazio aske, erraz eta erabilgarriak sortu dira, euskaraz ere badaudenak.

* *Igor Ruiz Agundez*, Ingeiniari informatikoa. Informazio sistemen doktoretza egiten. Deustuko Unibertsitateko ikerlaria.

4. Jendearen aurrean hitz egiteko teknikak


Ideiak, proposamenak, proiektuak aurkeztu edo produktuak saltzeko jendearen aurrean hitz egin beharra oso ohikoa da gaur egun.

* *Gotzon Carcar Muerzgo*, Coach pertsonala eta profesionala, Trainer's Training Masterra Programazio Neurolinguistikoa. UEUKo kidea.

www.ueu.org web-orrian matrikulazio-orria bete behar da.

Informazio gehiago: Maria González Gorosarri. 943 821 426

Ahoa bete hots Jardunaldiak



II. Jardunaldia: Idatziak ahotsa hartzeko duenean

Azaroaren 2an, 3an eta 4an *Ahoa*

bete hots jardunaldiak izango dira, bigarren urtez, Mintzola ahozko fabrikaren Villabonako egoitzan. Jardunaldiak *Mintzola* berak antolatu ditu, lau elkarteren laguntzaz: *Euskal Herriko Bertsolazale Elkarte*a, *Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte*a, *Ipuin Kontalarien taldea* eta *Euskal Kantuzaleen Elkarte*a. Ahozkoa eta idatzizkoa bereiztea dute helburu jardunaldiek.

Egitaraua

Lehen eguneko saioak, hauexek:
- Ahozkoa eta idatzia, bi kultura. Zertan elkarren oztopo, zertan elkarren aberasbide. Luis Mari Larringan (EHU), Arantza Ozaeta (MU-HUHEZI).

- Esatearen ederra, Julia Marin (Itzulidatz).

- Pantaila euskarazko hitzez mintzo. Asier Larrinaga (EITB).

- Saio praktikoa: Arra. Arraroa. Egilea: Oier Guillan. Aktorea: Iñigo Ortega.

- Mahai ingurua: Luis Mari Larringan (EHU), Arantza Ozaeta (MU-HUHEZI), Asier Larrinaga, Oier Guillan, Iñigo Ortega, Julia Marin. Moderatzailea: Lorea Agirre: (MU-HUHEZI).

Informazioa

www.mintzola.com

Izen-ematea

Bete formularioa edo 943 693 870.



Gehitu elkar-teak antolatuta, urriaren 15ean, Donostiako San Patrikio ikastetxean, V. Eskoletan hezkuntza afektibo-sexualajardunaldia egin zen.

Aurkezpen labur baten ostean, 2010-2011 ikasturtean Donostiako Bigarren Hezkunt-



zako hainbat ikastetxetan egin zen inkesta baten emaitzak plazaratu ziren. Inkesta hartan, 14-18 urte bitarteko 609 ikaslek (327 mutil eta 282 neska) hartu zuten parte. Helburua, homosexualitateak, bisexualitateak eta transexualitateak ikasleengan zuten erreakzio emozionala ezagutzeko zen. 15 galdera egin zitzaizkien, eta, haiekin, norbanakoen eta taldeen bizikidetzaren baldintza zezaketean jakin nahi zen.

Emaitzak jasotzen zituen txostena aurkeztu ondoren, lan-taldeak egin ziren hango datuak aztertzeko eta ondorio posibleak hausnartzeko. Haren ostean, denok berriro elkartu eta denon artean aztertu ziren.

Azkeneko bilkura horretan, Mercedes Sanchez Sainz hezkuntzan doktorea hartu zuen ardura balorazioak jasotzeko eta haien interpretazioa egiteko. Mercedes Madrilgo Unibertsitate Complutenseko Didaktika eta Eskola-antolakuntzako irakaslea da. Horrez gain, aniztasun afektibo-sexualaren gaineko hainbat liburu koordinatu ditu.

Informazio gehiago nahi duenak, *Gebitu* elkartera jo dezake. Bere web gunean sar liteke: www.gebitu.net helbidean edo 943 468 516 telefono zenbakira deituta.



Jose Joaquin Alvarez de la Roza Madrilgo Duque de Rivas BHko Enpresen Administrazioako irakasleak bere zentroan duten LGTBko tutoretzaren berri eman zuen. Izan ere, LGTB (lesbianak, gayk, trabestiak eta bisexuak) estatuko eskola batean dagoen tutoretza bakarra omen da berak duena. Berarekin batera, beste hiru irakaslek jarduten dute tutoritza zehatz horretan lanean.

2.003az geroztik aniztasun afektibo-sexualari arreta eskaintzen diote tutoretzan. Horregatik, han egiten dutena, nola egiten duten azaldu zuen.

Gaitasun handiko ikasleen kopurua ia bikoiztu egin omen da EAEn urte gutxitan

142 ikasle izan dira antzeman diren eta Euskal Autonomia Erkidegoan tratamendu espezifiko jasotzen duten haurren kopurua, ia 2007-2008 ikasturtearen bikoitza; izan ere, orduan arlo horretan egindako ikerketa baten arabera, 74 ikasle izan baitziren.

Gaitasun handiko ikasleei eman beharreko hezkuntza-arreta irakasleei

zuzendutako aholkuak dira, bertan, funtsezko gakoak eskaintzen ditu, haur horien premiak antzeman eta beroriei tratamendu egokia emateko.

Zentzu horretan, eta sailburuak azpimarratu duenez, "ebaluazioak ez du bakarrik haurraren adimena finkatzeko zentratu behar, haren puntu indartsuak eta ahulak aurkitzean baizik, ho-

rrek ematen baitu haur bakoitzari tratamendu egokia eskaintzeko aukera". Bestalde, gaitasun handiko ikasleen premiei eman dien erantzunari dagokionez, hauxe: "Ez da bakarrik garapen kognitiboa estimulatu behar; horretaz gain, haurraren gaitasun emozional eta sozialak era orekatuan ere garatu behar dira", azpimarratu du Isabel Zelaak.

Jaiegun “arrotzean”, herri eskolak Gernikan



Zabalik da Elhuyar Olinpiadan ize-na emateko epea.

Euskal Herriko DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei zuzenduta dago eta hainbat helburu ditu. Tartean, zientzia eta teknologia gaiak era atseginean lantzea; teknologia berrietan trebatzea; gazteak zientzia-gaietan sortzaile bihurtzea; beste ikastetxeetako gazteekin batera aritzea eta elkarrengandik ikastea; eta gelakideen artean talde-lana sustatzea.

Taldeka hartu behar da parte, eta ikasgela osoak talde bakarra osatuko du.

Elhuyar Fundazioak antolatzen duen zientzia eta teknologia olinpiadak 10 urte bete ditu aurten. Ospatze-ko, olinpiadak itxura berri du eta Webgunea estreinatu du.

Zientziaren inguruan gelakideekin ondo pasa nahi izanez gero, animatu eta izena eman; sari ederrak lor daitezke, gainera.

www.olinpiada.elhuyar.org

Lanbide Heziketako ikasketa berriak

Nafarroako Gobernuak Lanbide Heziketako hiru ikasketaren curriculum-a onartu du. Honako hauek dira: Energia Berri-tagarriak, Nekazaritzako eta Abelazkuntzako Ekoizpena eta Sukaldeko Zuzendaritza.

Arrazakeria prebenit-zeko materiala

Auzokide berriak (www.losnuevosvecinos.net) 11 eta 14 urte bitarteko nerabeen artean xenofobia eta arrazakeria saihesteko heziketa-proposamena da.

Ekimen horren euskarri nagusia komiki bat da. Komikiaren orrialdeetan, neskek eta mutilek pertsonaia eta istorio desberdinak aurkituko dituzte, eta horiek guztiek hiritartasunaren balioei, migrazio-prozesuei eta kulturarteko bizikidetzari buruzko gogoeta egiteko gonbita egingo diete.

Ekimena Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak eta Hezkuntza Sailak bultzatzen dute, eta heziketa-materialak EDEXek prestatu ditu. Materiala hiru hizkuntzatan dago: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

Haurreskoletako greba bertan behera

Haurreskolak partzuergoko greba bertan behera utzi dute LAB eta EILAS sindikatuek. Hainbat bileren ondoren, adostasunak lortu dituztela-eta, erabaki hori hartu dute. Aldi batetik, 2010 eta 2011 urteetako soldatetan ez dute murrizketarik izango. 2010eko abenduan 800 euroko soldata murrizketa egitea aurreikusia zuten eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak haren errekurtsioa baztertu egin du. Bestetik, hainbat haur eskolen egoera kezka sortzen zuenez, herrialdeko talde teknikoak sortu dira eta eskola horiek aztertu egin dira. Dagoeneko, neurri batzuk hartuko dira langile gehiago kontratatuta.



Akordio horrek negoziazio bidea erraztu egin du. Hala, lan hitzarmen berria negoziatzeari ekingo diote, egungo lan baldintzak hobetzeko.

ELA sindikatuaren arabera, LAB eta EILAS sindikatuek Haurreskola partzuergoarekin lortutako ituna “atzerapausoa” da. Sindikatuaren arabera, patronalak gauza bakarra onartu du: soldatak murriztea legez kanpotzat jo zuen epaiaren aurka jarritako helegitea kentzea. Gainera, itunaren arabera, eskola bakoitzeko egoera aztertzeke batzordea egingo da, eta, ELAren ustez, “Murrizketak bere horretan jarraitzeke txeki zuria eman zaio patronalari”.

V. jardunaldiak

abenduak

16

donostia
miramar
jauregia

haur hezkuntzaren garrantzia euskararen jabe-kuntzan eta garapenean

egitaraua

Kontseiluak adin tarte horretarako duen proposamena.

*Paul BILBAO. Kontseiluko koordinatzailea

Haurren hizkuntza-gaitasunak ikuspegi psikologikotik.

*Maria-Jose AZURMENDI. (EHU)

Arlo emozionalak edota enpatiak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan duen garrantzia.

*Karmele PEREZ. (MU)

Ikastetxeetako "praktika onak".

*Ikastolen Elkarte, *EHIGE, *Sortzen-ikasbatuaz eta *Kristau Eskolak

Haur euskaldunen komunikazio garapena neurtzeko KGNZ tresna: 8-50 hilabete bitarteko enaitzak.

*Andoni Barreña (Salamanca Unibertsitatea), *Marijo Ezeizabarrena (EHU) eta *Garcia, Iñaki (MU)

Nola egiten ari dira hizkuntzen tratamendua Kataluniako HHn?

*Kataluniako Generalitateko ordezkari bat





Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...

>>> Hamaika buruhauste izaten ditugu eguneroko jardunean. Haien artean, geroz eta ozenago eta bazter gehiagotatik, kezka nagusi bat zabaltzen ari da lau haizetara. Gure arreta bereganatu du kezkak eta hausnarketa laguntze aldera jarri nahi izan dugu hemen gure ale. Galdera bota dugu eta hona gure irakurleek zer esan diguten: *Nola hezi behar ditugu hurrengo belaunaldiak?*

>Pedagogia ala didaktika

Ba al dago alderik pedagogia eta didaktikaren artean? Ba, horixe, alde hori bera ikusten dut heziketaren eta irakaskuntzaren artean. *Marisa*

>Erantzun polita

Erantzun polita eman diguzuna, Marisa. Bai horixe! Halere, nik uste, badela aldea pedagogia eta didaktikaren artean.

Nik behinik behin, hezkuntzaren gaineko ikuspegi edota filosofiarekin lotuko nuke pedagogia; didaktika, berriz, hezkuntza ikuspegi jakin hori gelaratzeko moduarekin. Esan nahi dut, hezkuntza ikuspegiaren arabera izan behar lukeela didaktikak, hau da, ikaslea irakaskuntza-ikuskuntza prozesuaren ardatz duen pedagogia hobesten badugu, metodologia aktiboak (didaktika aktiboak) erabili behar genituzke. Beraz, nire ustez behintzat, pedagogiak didaktikak baino esparru zabalagoa hartzen du. Hara zer dioen Harluxet hiztegiak pedagogia eta didaktikaz:

PEDAGOGIA: Hezkuntzaren metodoa eta printzipioak aztertzen dituen jakintza.

DIDAKTIKA: Hezkuntza zuzentzen eta gidatzen duen zientzia. Didaktika orokorrak irakaskuntza osotasun moduan hartuta tratatzen du eta arau eta oinarriak ematen ditu. Didaktika aplikatuak diziplina edo gai konkretu batean aplikatzen ditu arau eta oinarri orokor horiek.

Kontxo! Definizio horiekin berriz ere zalantzak sortu zaizkit!!!

Kontuak kontu, ez zait hain garrantzitsua iruditzen hezkuntza/irakaskuntza eta pedagogia/didaktika kontzeptuen artean dauden aldeak nabarmentzea. Askozaz ere garrantzitsuagoa iruditzen zait pentsatzen dugula esaten dugun horren arabera esku-hartzea egitea ikasleekin. Alegia, diskurtso mailan predikatzen dugun eta praktikan egiten dugunaren arteko koherentzia aritzea.

Bestela pentsatzen duenik bada, hitz egin (idatz) dezala!!! *Aritz*.

>Pedagogia vs didaktika

Piztu duzuen eztabaidak tentatu egin nau, eta hara zer aurkitu dudan interneten:

<http://es.answers.yahoo.com/question/index?qid=20061119081632AAeb7uJ>. *Lurdes*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> Zein da hezkuntzari buruzko zure kezka nagusia?

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

argitalpenak



Arturo

Oli/ Marc Taeger
PAMIELA

Testu erraza eta sentibera, marra lodi, kolore bizi eta forma eskematiko-dun ilustrazioez osatua; hala, irakurletxikiaren identifikazioa eta ulermena eraztuz.

Jaioberrien hauskortasunaz ari den kartoi gogorreko liburua. Protagonistak, samurtasuna eta babes sena pizten ditu irakurle helduengan. Aurre-irakurle eta lehen irakurleentzako. •



Antxume tentela! Ahate txepela!

Isabel Abedi / Silvio Neuendorf
TTARTTALO

Ahatetxoa eta Antxumea adiskide minak dira. Baina noizean behin haserretu egiten dira eta ez dute elkarren berri jakin nahi izaten... Istorio hauetan, haurtzaroan ohikoak bezain funtsezkoak diren bizipenak jasotzen dira: haserretu eta bakeak egin, kendu eta itzuli, galdu eta irabazi, aitortu eta barkamena eskatu. 6 urtetik gorako haurrentzat. •



Vampiria

Aitor Arana
IKASMINA

Europako nonbaiteko ospitale psikiatriko batean sartu dute Selene, bere burua banpirotzat jotzen duen neska gaztea. Ez da ezertaz oroitzen, ez nor den, ez zer lanbide zuen, ez nongoa den, baina banpiroa dela sentitzen du; hori oso garbi dauka, egun argitan inongo arazorik gabe ibil daitekeen arren. 12 urtetik gorakoentzat. •



Heriotza zuriz jantzita

Migel Anjel Mintegi
IBAIZABAL

Brasiletik engainatuta ekarritako neska gaztea, ganbaran ezkatututa dago bahituta zeukaten gaizkileengandik ihes eginda. Elurraz eta inauteriez gozatzera Pirinioetara hurbildu diren lau gaztek neska horri laguntzea erabaki dute. Harrezkero, sekulako istiluetan sartuko dira, gaizkile eta polizia ustelen susmopean. Hil ala biziko egoeran! •



Euskal Herriko Udalen izendegia

Izenak bilduma
EUSKALTZAINDIA

Euskaltzaindiaren Onomastika lanak euskal izenen ikerketa du helburu. Izen horiek bildu, sailkatu, ikertu eta arautu ondotik, beharrezkotzat jotzen du izenen forma zuzenak plazaratzea, euskararen erabileran eta normalizazioan eragina izan dezaten. Hori da, hain zuzen ere, IZENAK bilduma honen xedea. •



Rita eta zilarrezko txoria

Mikel Valverde
ELKAR

Bere auzoko biltegi zahar batean zerbait izugarria ikusi du Ritak: zilarrezko txori bat. Etxera itzultzean, osaba Danielek kontatzen dio, elezahar batek dioenez, zilarrezko txori bat ikusten denean, desio bat eskatzen bada, bete egiten dela. Ritak ez du ezer eskatu eta txoria ikusi nahi du berriro. •

... nora joango gara?

Valderejo: natura, abentura eta etnografia biltzen dituen uhartea

Arabako azken muturrean, Burgosen ia, Gaubeako harana dago, eta, haran horretan, naturak bere basatasun osoari eutsi dio gaurdaino. Klima eta geologia bereziko harana da Gaubeakoa, eta, horren ondorioz, aberatsa da floraren eta faunaren ikuspegitik. Horrez gain, historia handiko lekua da, antzinatean jendeztatu baitzuten Gaubeako harana, nahiz eta, gaur egun, bailarako herri asko hutsik dauden. Gaubeako haranean dago Valderejo Parke Naturala, naturaz, historiaz eta abenturaz gozatzeko leku paregabea.

“Harriz inguratutako uharte”a deitzen zaio Valderejori, kareharrizko harrisiak izaera berezia ematen baitio Arabako mendebaldean dagoen parke natural horri. Arabako parke naturalik txikiena da, 1992an natur-parkea izendatu zutenetik: 3.496 hektarea hartzen ditu. Baina udako klima bero eta lehorrari eta neguko hotzei eta elurte gogorrei esker, harribitxi ikusgarriak gordetzen dituzte mendi eta basoek.

Natura da Valderejoko altxorrik preziatuena. Pinu gorritz, hurritzez, artez eta pagoz osatutako baso aberatsak ditu gunek, eta animalia mota ugari bi-



zi dira baso horietan: sai arrea, orkatza, basurdea, arrano sugezalea, basakatu, otsoa...

Basoan murgildu aurretik, Parketxeak aukera ederra eskaintzen digu Valderejoko ekosistema ezagutzeko: Lalastra herrian, naturguneko orografia, fauna eta flora ezagutzeko eta ulertzeko giltzak eskaintzen zaizkio bisitariari, animalien oinatzak nolakoak diren azaltzen da, nola jokatzten duten... natur-parkearen maketa handi batek erakusten du, gero, mendian egin ahal izango dituzten ibilbideak.

Parketxe hori Lalastrako antzinako eskola da, eta material didaktiko ugari dago, babestutako espazio horretako

altxorrak hobeto ezagutzeko.

Valderejoko natur-parkeak, beraz, natura bere basatasunean ezagutzeko aukera ematen die ikasleei, fauna eta flora ezagutzeko, mendi eta basoetan barrena ibilaldiak egiteko; eta, osagarri moduan, Gaubeako haranean abenturarako tarte handia dago, oinez, zaldiz, quadetan nahiz bizikletan paseoak egin baitaitezke; eta eskalada, piraguismoa, orientazioa, bidaiak baloi aerostatikoetan, arku-tiroa, urpeko igeriketarako prestakuntza, rappela, puentinga, eta abar.

Naturaz eta abenturaz gain, Valderejo leku berezia da, aberastasun etnografiko handikoa. Historiak aztarna



ugari eta sendoak utzi ditu Gaubeako haranean. Valderejo bera jendeztatuta egon da, gutxienez Neolito garaitik, eta horixe erakusten dute tumuluek, kulturekuek eta aztarnak. Nekazaritzan hasi ziren garai hartako Valderejoko biztanleak, eta animalia batzuk etxekotzen. Karkamuko kobek garai horretako aztarnak gordetzen dituzte, adibidez. Ondoren, erromatarrek menperatu zuten lurralde hori, eta horren erakusgarri dira galtzada erromatarrek. Baina aztarna historiko gehien utzi duen garaia Erdi Aroa da: arabiarrak sartu ondoren, jatorrizko herriarrek herrixkak utzi egin zituzten, eta mendietara alde egin zuten, harana erdi hutsik utzita. Azkenik, erlijioso kristauen etorrerak eragin handia izan zuen Valderejon, monasterioak egin baitzituzten.

VALDEREJOKO PARKE NATURALA

01427 LALASTRA

Tel.: 945 353 146 - 947 566 091

Fax: 945 353 146

e-mail: parquevalderejo@parques.alava.net



ORDUTEGIA

Astelehenetan izan ezik, egunero dago irekita.
Ezinbestekoa da taldeek bisitatzeko hitzordua hartzea.

KOKAPENA

Arabako mendebaldea, Burgosekiko mugan
Gasteiztik 55 km-ra

Neolitotik jendeztatutako lurraldea

Historia ezagutzeko aukera ematen du Valderejoko Interpretazio Zentroak. Valderejoko natur-parkearen barruan, lau herri daude: Lalastra, Lahoz, Villamardones eta Ribera. Garai batean Lalastrako udaletxea zen eraikinean dago kokatuta, gaur egun, museo etnografikoa, eta, eraikina berri-berri badute ere, antzinako arkitekturari eutsi diote. Historiak utzitako aztarnak ezagutarazteaz gain, artisauen lanak, nekazaritzako tresnak eta Valderejoko biztanleen izaeraren eta bizimoduaren adierazgarri diren garai bateko tresnak erakusten dira museo horretan, hala nola teilan fabrikazioa, lihoaren ereitea eta lanketa, zerri-hilketa, otarregintza, abeltzaintza...

Udaletxeaz gain, kultur-interes handiko hainbat eraikin eraberritu dituzte parke naturalaren barruan, Arabako mutur horretako etnografia ezagutzeko gune garrantzitsuak guztiak; antzinaroan erabilera jakin bat zuten eraikinak dira: ikuzarria, ogitarako labea, ferratzeko zaldia, ur-errota, otoi-zerako ermita...

Valderejoko etnografia eta altxor naturala ezagutzeko, bederatzibide ibilbide prestatu eta markatu dira natur-parkearen barruan. Kareharrizko pareta luzeetan, lau mendi-tontor nabarmentzen dira: Arrayuelas (1.129 metro), Reencuenco (1.240 m.), Vallegrull (1.226 m.) eta Santa Ana (1.042 m.) Baina ibilaldi laburrak egiteko aukera ere eskaintzen du parkeak; izan ere, kilometro eta erdiko ibilaldia da markatutako laburrena, eta bederatzibide kilometro eta erdikoa luzeena. Puron ibaiaren haizpeetatik doan zidorrak ikusmin handia pizten du, Valderejo osoa zeharkatzen baitu kareharritik sortzen den ibaiak.



atzeko atetik



Koldo AMESTOY

IPUIN KONTALARIA

Gure aitona, etxeko haurren lagun handi eta konplize atsegina izan genuen betitik. Zerbait behar genuela, nonbait min genuela, guretako bat hemendik hara eraman behar zela eta, gure aitona beti hor zegoen. Behar orduan, laztan goxoa, aholku zuhurra, gidaritzza segurra gogo onez eskaintzeko beti prest zegoen. Nik behintzat, ez nuen beste lagun fidagarri eta maitagarririk, gure aitatziz besterik.

Herriko eskola ttikia bukatu ondoren, ikasketak hiriko eskolan abiatu behar nituela, joan eta etorriak egiteko, aitatziz nuen betiko garraiolari zintzoa.

Zubi gaineko trukaketak

Bere auto zaharrean sartzen nintzen, errege bat bezala atzeko aulkietan eseri eta, tira aurrera!

Gauza bat aitortu behar dizut hala ere. Hau da, erritualarena... Astelehen goizero, hiri nagusira gindoazela, herri irteeran daukagun zubi ttiki gainean aitatzik autoa gelditzen zuen. Orduan, kotxetik atera behar nuen, eta hortxe eskatzen zidan, "euskara" erreka bazter honetan uzteko, eta "frantsesa" beste aldean jaso eta eramateko. Eta nik, zintzo-zintzo bere agindua kunplitzen nuen: nire hizkuntza hemen laga eta "frantsesa" hantxe hartu. Eta tira, aste gutzirako frantsesez aritzera! Ostiral iluntzean, aldiz, eskolatik itzultzerakoan, zubi gaineko errito berdina, alde-rantziz egiten genuen: erdara euskararekin trukatu eta, euskara gogo-mihitan, pozik eta harro herrian sartzen nintzen.

Egun batez, zoritxarrez, aitatziz zendu zitzaigun. Auzokorbaitek, ez naiz gogoratzen zein izan zen, hiritik etxera ekarri ninduen eta ziztu bizian zubi gainetik iragan zen. Noski, delako harek

ez zuenez errituala ezagutzen, zubi gaineko geldiduna ez genuen markatu. Eta ni, frantsesa ahoan etxeratu nintzen. Laster konturatu nintzen, ez zela gure etxean, herrian eta eskualdean denetan frantsesa baizik entzuten, eta euskararik batere ez.

Behin, igande arratsalde batez, familiakoak loaldian zeudela, aitatziren autoa harturik hiriko bidetik urrunduz nintzen. Han nonbait biratu eta gure zubi gainean geratu nintzen. Hortxe bertan, frantsesa euskararekin aldatu nuen eta herrira itzuli nintzen, berehalaxe.

Geroztik, gure etxean eta herrian ere, euskarak berriz bere lekua hartzen ari du, poliki-poliki... Eta entzuten da, geroz eta gehiago, denetan.

Orain, aitona gogoan, zubi erdian gelditzen naiz beti. Eta aldiro, autotik jaisten ere... Ez, ez dut gehiago euskara erreka ondoan uzten, baizik eta, herri-tik kanpo joateko behar dudana beste mintzaira erreka bestaldean hartu egiten dut, eta euskararekin batera nire hizkuntza poltsan sartzen. Eta aurrera noa!



Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikasleen %35,8k osasuntsu gosaltzen dute. Batez beste, hamabost minutu ematen dute gosaltzen. 98 ikastetxetako 2.400 ikaslek hartu dute parte inkestan.

Zirtaka Antzerki
Taldeak aurkezten du




Manduñi Pirata

*etorri pirataz mozorroturik!

Kontratazioa: umegunea@gmail.com - Tel: 662 472 746

www.kurkuluxetan.org



KALITATEA HAUR ESKOLETAN

hh
hik hasi

Jardunaldiak



Nola-halako Haur Eskolak nahi ez ditugunez, zein kalitate mota nahi dugun ongi aztertu behar dugu

Azaroaren 11an (ostirala) DURANGON

- Hainbat berba haurren ongizateaz eskolan.

* **Alexander Barandiaran eta Iñaki Larrea.**

Mondragon unibertsitateko irakasleak.

- **Bizi eta ikasi haur txikiekin.** (gaztelaniaz)

* **Rosa Ferrer.** *Sant Cugat del Vallès-eko Cavall Fort haur eskola. Katalunia.*

* **Elia Martínez.** *Sant Adrià dels Besos-eko Josep Miquel Céspedes haur eskola. Katalunia.*

- **Kalitate eredu proposamena 0-3 eskoletarako.**

* **Txusma Azkona.** *Haur Hezkuntzako irakaslea eta Lizarrako Arieta Haur Eskolako zuzendaria.*

Azaroaren 12an (larunbata) DONOSTIAN

- Hainbat berba haurren ongizateaz eskolan.

* **Alexander Barandiaran eta Iñaki Larrea.**

Mondragon unibertsitateko irakasleak.

- **Bizi eta ikasi haur txikiekin.** (gaztelaniaz)

* **Rosa Ferrer.** *Sant Cugat del Vallès-eko Cavall Fort haur eskola. Katalunia.*

* **Elia Martínez.** *Sant Adrià dels Besos-eko Josep Miquel Céspedes haur eskola. Katalunia.*

- **Kalitate eredu proposamena 0-3 eskoletarako.**

* **Txusma Azkona.** *Haur Hezkuntzako irakaslea eta Lizarrako Arieta Haur Eskolako zuzendaria.*

- **Mahai-ingurua.** *Txusma Azkona, Alexander Barandiaran, Rosa Ferrer, Iñaki Larrea eta Elia Martínez.*

informazio osoa eta izena emateko aukera:

www.hikhasi.com Tel.: 943 371 408